



BARREN

TXIKI

50 Txiki elkarrekin



GOOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42



Ondo pasa San Bartolome jaietan!

943 366 3 77

www.dentalaldaz.com



Lasarte-Oria
Ola kalea, 10

Elgoibar
San Bartolome, 22

Tolosa
San frantzisko, 39



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legeburuaren Argitalaritza

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Irtzia, Hitz eta klik eta eskuizitaz ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Sorraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► OHARRA

Abuztuaren 30ean jasoko duzue hurrengo zenbakia, jaietako berezia, eta irailaren 6an jasoko duzue ikasturte berriko lehengoa. Ordura arte, ondo pasa jaietan!

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituharritaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutitzik argitaratuko.

administradores

Consejo Basco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Unibertsitatearen Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean, presidente karguan dagoen pertsona ez da ari batzarretako aktak sinatzen, bere gogoko ez diren akordio batzuk hartu direlako batzarrean. Jakin nahi nuke ea behartu dezakegun aktak sinatzera.

Akta guztiak presidentearen eta akta jasotzen duen idazkari-kudeatzailearen sinadurarekin itxi behar dira berez, eta akta ixten den unetik, akordioak betetzeko dira, legeak bestelakorik ez badio behinik behin.

Hala ere, bere interes partikularren kontrako erabakiren bat hartu delako presidentearak akta sinatzeari uko egiten badio, aski izango da idazkari-kudeatzailearen edo etxaldean administrazioarekin sinadurarekin, bera delako akta jasotzen duena eta presidentearen ezetzaren arrazoiak aktan jaso behar dituenak.

Beraz, presidentearen sinadura barik ere, akordio hori balekoa da, eta ondorioz, bete beharrekoa. Aktak presidentearen sinadura ez izateak ez du batzarrak onetsitako erabaki bat baliorik gabe uzten.

AHOLKUA: Komunitateko presidentearak akta sinatzearen esangura formala da, alde ezberdinek hartutako erabakiak konfirmatzeko modu bat den heinean. Forma kontu horiek ez betetzeak, baina, -alegia, presidentearak akta ez sinatzeak, ez du batzarra bera baliorik gabe uzten, ez dituelako gainerrako jabekideak babes gabe uzten.



BELAUSTEGI BASERRIA
Jatetxea restaurante

Ondo pasa jaietan!

www.belaustegi.com

San Migel Gaina z/g
Tel. 943 74 31 02

JAIETAN,
ONDO
PASA!!





Mauxitxa: 50 urtez Txiki Eguna girotzen

Mauxitxa txaranga 50. aldiz irtengo da aurten Txiki Eguna girotzera. 1970eko Txiki Egunean jo zuen Mauxitxak estreinakoz Elgoibarko kaleetan, eta ordutik, hutsik egin gabe irten da jaietan, 50 urtean. Makillak kuadrillako zazpi lagunek osatu zuten estreinako txaranga hura: Luis Zubiaurre *Balle* (klarinetea), Victor Zubiaurre (saxofoia), Rikardo Gorriti (kaxa), Juan Luis Arregi (bonboa), Rikardo Mujika (txapak) eta Txomin Mujika (bonbardino). Zuzendaria, Jose Alberto Ansola izan zen, *Mauxitxa*.

Uztailean sortu zuten taldea, eta gogor ekin zioten lanari. Egun gutxiren barruan hainbat abestiz osaturiko errepertorio zabala zeukaten prest, eta, hara non, Soroluzeko Santa Ana txiki egunean jotzeko eskakizuna jaso zuen Rikardo Gorritik. Bezperan ziren kontratua sinatzekoak, baina azkenean, kontratugileek kale egin zuten. Desilusioa handia izan zen, baina ez etxean geratzeko bestekoa. Victor Zubiaurreren osabaren Seat 600 autoan sartu zituzten instrumentuak, eta osaba eta biak abiatu ziren Soroluzera. Gainerako musikariak, eta herriko beste neska-mutil mordoska bat autobusez joan ziren. Maltzagara lehenik, eta handik, La Bergaresa hartuta, Bar Gilara. Praka urdinak eta alkandora zuriak jantzita joan ziren taldekideak. *Viva el anís* izan zen jo zuten lehenengo pieza. 307 pezeta bildu zituzten ikusleen artean, eta Udalak etxera itzultzeko taxia eta mila pezeta eman zizkien. Ba-

1970eko Txiki Eguneako argazkia. Goian: Victor Zubiaurre '*Balle*' (†), Jose Antonio Osoro '*Katxo*', Juan Luis Arregi '*Planti*', Jose Angel Zubiaurre '*Balle*' (†), Txomin Mujika. Behean: Luis Mari Zubiaurre '*Balle*', Ricardo Mujika '*Fonta*', Jose Alberto Ansola '*Mausitxa*' eta Ricardo Gorriti.

koitzak 150 pezeta hartu zituen, eta gainerakoa txanpana erosteko erabili zuten. Ondo baino hobeto ospatu zuten estreinaldi hura, eta estreinaldiaren arrakasta ikusita, entseguak egiten jarraitu zuten, Txiki Egunerako errepertorioa zabaltzeko. Kalejirak, balsak, jotak... prestatu zituzten sanbartolomeetarako.

Zazpiko taldeari Jose Antonio Osoro *Katxo* eta Jose Angel Zubiaurre *Balle* batu zitzaizkien, eta bederatzik horiek osatutako taldea irten zen 1970eko Txiki Egunean kaleak musikaz jantzi eta herritarrek dantzan jartzera.

1974rako hamabi lagunek osatzen zuten Mauxitxa, Antxon Azpiazu, Jose Inazio Sarasua eta Jose Inazio Izagirre ere batu zituzten kalejira eta erromeria artean.

Elgoibarko eta beste hainbat herritako festetan ere jotzen hasi ziren, eta 1976an lehenengo aldiz jo zuten Lanaren Diana. Jaime Arrese orduko alkateak afari bat agindu zien txarangako lagunei, irailaren 1ean goizean irteten baziren, oporren bueltan jendea lanera bidaltzeko. Esan eta egin. Ordutik ohitura bilakatu da hori ere, eta elgoibartarrak Mauxitxarekin hasten dira lanean, abuztuko oporren ostean.

Eta kontratu orduko mende erdia bete du txarangak. Mauxitxak herritarrekin ospatuko du urteurrena, eta eskerrak eman dizkiete herritarrei, urte hauetan guztietan emandako babesagatik.

JOSE ALBERTO ANSOLA 'MAUXITXA'

TXARANGAKO LEHENENGO ZUZENDARIA

Jose Alberto Ansola izenez gutxi ezagutuko dute kalean, baina *Mauxitxa* esanez gero, ez da oharkabeen pasatuko. Bera izan zen txarangaren sortzaileetako bat 1970ean, eta 30 urte egin zituen zuzendari karguan. 2000. urtean laga zuen taldea, baina gertutik bizi du oraindik txaranga.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola izan zen txarangaren sorrera?

Makillak kuadrillaren barruan solfeoa ikasten zuten batzuek, eta instrumentuak ere jotzen zituzten. Orduan kanpoko txarangak ekartzen zituzten jaietan, eta kuadrillako norbaiti bururatu zitzaion txaranga sortzea. Ni garai hartan Madrilera joan behar izan nintzen ebakuntza bat egitera, eta handik bueltatu nintzenerako hasita zeuden kontu honekin. Abestiei hasiera eta amaiera emateko norbait behar zutela-eta, ni jarri ninduten zuzendari. Eta, ni, pozik, jakina.

◆ Txarangari zure izena jarri zenioten. Nola erabaki zenuten hori?

Anekdotikoa izan zen hori. Egunkarian idatzi zuen kazetari batek argazki-oin batean *Mauxitxa* eta bere mutilak entsegu batean eta hortik aurrera hartu zuen taldeak *Mauxitxa* izena. Luis Mari Zubiaurre *Ballek* behin baino gehiagotan esaten zidan txaranga berea zela eta ni nintzela zuzendaria. Oso ondo konponzen gara, eta txantxetan ibiltzen gara askotan.

◆ Estreinako emanaldia Soraluzen egin zenuten. Zergatik egin zenuten debuta herritik kanpo?

Lehenengo aldia izanda, herrian baino lasaiago egongo girela pentsatu genuen. Sanbartolomeetara begirako entsegua izan zen guretzat. Santana Txiki Eguna zen, uztailearen 26a. Sekulako arrakasta izan genuen, eta San Roke jaietarako kontratatatu gintuzten. Santanak dira jai nagusiak Soraluzen, baina sanroketara ere pozik joan ginen.

◆ Zenbat urte egin zenituen txarangako zuzendari?

30 urte. 2000. urtean laga nuen txaranga, 48 urte nituela. Sorrerako talde hartatik ni izan nintzen txaranga lagatzen azkena. Eta 30 urtean emanaldi bakarra galdu nuen! Beste guztietan ez nuen sekula hutsik egin. Elgoibarko emanaldi guztietan egon izan nintzen 30 urtean, galdu nuen bakarria kanpoko herriren batekoa izan zen. Elgoibarko sanbartolomeetan emanaldi bat galtzekotan egon nintzen behin sokamuturrean hartu nuen kolpe baten ondorioz, baina azkenean irten nintzen.

◆ Zer sentitzen zenuen herritarrek 'Mauxi, Mauxi' oihukatzen zutenean?

Herriaren alde zerbait egin dudala sentitzen nuen. Elgoi-



“Niretzako Txiki Eguna da onena, bai lehen eta baita orain ere”

barrek asko maite du txaranga, eta hori sentitzea polita da.

◆ Txaranga utzi zenuenetik nola bizi dituzu jaiak?

Desberdina da jaiak txaranga barruan edo kanpoan bizitzea. Nire zuzendari papera musikariak eta herritarrek animatzea zen, bereziki. Txaranga gauza handia da Elgoibarren, eta niretzako Txiki Eguna da onena, bai lehen eta baita orain ere. Iruñeko bantentzat sanferminak izango dira jaiak onenak, baina niretzat, sanbartolomeak.

◆ Aurtengo Txiki Eguna bereziagoa izango da?

Bai, beti da berezia, baina aurtengoa polita izango delakoan nago. Txarangan ibili izan garen asko bilduko gara, eta ondo egongo da.

◆ Jaien hasierako txupinazoa botako duzue aurten. Zer sentitzen duzue?

Pozik hartu dugu, polita izango da, baina txarangaren ibilbidetan beste momentu bat gehiago izango da. Sortzaileei eman digute txupinazoa botatzeko aukera, eta eskertzekoa da, txaranga gehun lagun baino gehiago pasatu direlako, eta denek merezi dutelako errekonozimendua. Gu txarangaren parte bat besterik ez gara.



“Ilusioa da hitza; ilusioak bultzatu gintuen txaranga sortzera”

◆ Nola gogoratzen duzu txarangaren sorrera?

18 urte nituen nik txaranga sortu genuenean. Makillak kuadrilatik irten zen ideia, eta Zubiaurre anaiak niregara jo zuten partitura eske. Baldintza bat jarri nien: nik ere txaranga jo behar nuela. Ni isilean, etxekoen ezkutuan, bonbardinoa jotzen ikasten ari nintzen, baina ez zekien inork. Baietz esan zidaten, ez zegoela arazorik. Haizezko instrumentuetan beraz, hiru geunden, Zubiaurre anaiak eta ni. Tolosako Peña Alcoyano izeneko taldea zen gure erreferentzia, eta haien errepertorioa izan genuen oinarri hasieran.

◆ Nola egiten zenituzten entseguak?

Bandaren akademiako giltza neukan ordurako, eta lokal hartan egiten genituen entseguak. Garai hartan jendea ez zen orain bezala joaten kanpora oporretan, eta abuztu osoan zehar egiten genituen entseguak. Egunean zehar gure planak geneuzkan, baina iluntzean, akademiara joaten ginen egunero, eta pozik. Denbora laburrean obra pila bat prestatu genituen.

◆ Nola prestatzen zenituen partiturak?

Denetarik jotzen genuen. Irratian entzuten bagenuen *udako abestia* zena, hura ere ateratzen saiatzen ginen. Alkorta tabernak (San Frantzisko tabernan zegoen) disko makina zeukan, eta bi pe-

TXOMIN MUJIKA

TXARANGAKO SORTZAILEETAKO BAT

Musikari emanda bizi da Txomin Mujika, eta Elgoibarko musikagintzan erreferenteetako bat da. Askok Musika Bandarekin lotuko dute, baina txarangaren sortzaileetako bat ere izan zen. Hamar bat urte egin zituen Mauxitxan, eta garai hartako oso oroitzapen politak gordetzen ditu oroimenean. Ohikoa duen hitz jarioarekin kontatu dizkigu orduko kontuak.

- AINHOA ANDONEGI -

zeta sartuta nahi zenuen abestia entzuteko aukera zeneukan. Nik hamar pezeta ateratzen nituen kutxazainean, eta horrekin abestia bost aldiz entzuteko aukera neukan. Lehenengo aldia entzun egiten nuen, eta bigarrenengoan ere bai. Hirugarren aldia noten zirriborroa egiten hasten nintzen paperean. Laugarrenengoan zuzenketak egiten nituen, eta bosgarrenengoan entzuterako prest neukan partitura. Iluntze horretan bertan eramaten nuen partitura lokalerara eta berehala ikasten genuen.

◆ Nola definituko zenuke Mauxitxa txarangaren hasierako etapa hura?

Ilusioa da hitza; ilusioak bultzatu gintuen txaranga sortzera. Soraluzen jotzeko deia jaso genuen, eta azken momentuan arazorik ez zegoen bat suertatu zen Udalarekin, baina guri ez zitzaigun inporta ez kobratzea. Momentu hartan ordaindu ere egingo genuke jotzeagatik. Gero afaria ordaindu, etxerako taxia jarri eta gainera dirua eman ziguten!. Sekulakoa izan zen debuta. Jotzeko ilusioa geneukan, besterik ez. Askotan afari bat egiten genuenean ere, afalostean lokalera joaten ginen instrumentuen bila eta kalejiran irteten ginen, jotzen gozatu egiten genuelako. Ordurako lanean hasita geunden asko, eta askotan, Plentzia edo Sopelan emanaldia eskaini ostean berandu etxeratzen ginen, eta hurrengo egunean lanera joan behar izaten genuen. Baina ez zitzaigun inporta. Garai hartan ez zeuden txaranga asko, eta herri askotatik deitzen ziguten. Miraballesen askotan jo genuen, Bilboko jaietan ere bai... Ilusioa geneukan eta pozik egiten genuen.

◆ Uste zenuten txaranga 50 urte beteko zituela?

Ezta inondik ere! Poliki-poliki hasi zen jendea txaranga sortzen eta taldea sendotu egin zen. Baina sorreran zazpi izan ginen, berehala bederatzi, baina ez zitzaigun inporta. Arima, bihotza eta bizitza jartzen genituen emanaldietan. Herriak txaranga maite du, eta hori sentitzea oso polita da. Mauxitxak urte askorako gasolina dauka oraindik.

◆ 50. urteurrenerako propio sortu duzu abesti bat.

Bai, San Bartolome Egunean estreinatuko dugu bandarekin, eta Txiki Egunean txaranga ere joko du. *Viva el anís* izan zen Soraluzeko estreinako emanaldian jo genuen lehenengo abestia, eta hari keinu bat egiten dio.

Mauxitxa non, festa han

50 urte bete ditu Mauxitxa txarangak, eta aurten ospatu egingo dute. Festetan hasiko dituzte urteurreneko ospakizunak, baina urte guztirako egitarava prestatu dute. Hala ere, Txiki Eguna izango da ospakizunen artean handiena. Txaranga eta herria, herria eta txaranga bat izaten dira Txiki Egunean. Herritarrek gogotik gozatzeko dute egun horretan txarangarekin, eta txaranga kideek are gehiago. Mauxitxaren lehenengo soinua hotzak entzutearekin hasten da festa. Ehun bat lagun pasatu dira Mauxitxatik mende erdi honetan, eta bi orri hauetan bildu ditugu protagonisten hainbat argazki. Erretratu hauek eta gehiago ikusteko aukera egongo da udazkenerako antolatutako erakusketan. Hau hasiera baino ez da.





A G E N D A

San Bartolome jaietan txupinazoa botako du Mauxitxak, eta horrekin hasiko dituzte urteurreneko ospakizunak. Urte osoko egitaraua prestatu dute, 2019ko sanbartolomeetan hasi, eta 2020 Soralezeko Santa Ana jaiak arte. Hona hemen lotuta dituzten ekitaldien zerrenda:

ABUZTUAK 23, SAN BARTOLOME BEZPERA

◆ **13:00** Txupinazoa botako dute, udal-tereko balkoitik.

ABUZTUAK 26, TXIKI EGUNA

- ◆ **12:00** Kalejira. Txarangako iraganeko eta egungo kideekin argazkia.
- ◆ **14:00** '50 Txiki' herri argazkia, Kalebarren plazan.
- ◆ **16:30** Kalejira, Kalegoen plazatik Sigmarara.
- ◆ **17:00** Herri bazkaria, Sigman.

ABENDURA ARTE

Txiki Eguneetik Gabonetara bitartean dokumental bat grabatuko dute Txiki Egunekeo bizipenekin eta herritarren laguntzarekin. Gabonetan aurkeztuko dute. Argazki erakusketa ere egingo dute, eta herrigintzako ekintzetan parte hartuko dute.

2020

- ◆ **Martxoa:** Sagardotegira irteera.
- ◆ **Apirila:** Kontzertu berezia, Udal Musika Bandarekin.
- ◆ **Maiatza:** Morkaiko Eguna aprobetxatuz, txarangen eguna.
- ◆ **Ekaina:** Trinitate jaietan, erraldoien alardea, erraldoi erakusketa eta herri bazkaria.
- ◆ **Uztaila:** Soralezeko Udalarekin elkarlanean, *Viva el anís* eta *Sukalde* abestiak joko dituzte. Soraluzen hasi eta Elgoibarraren bukatu.



Mauxitxa txarangak paper garrantzitsua betetzen du San Bartolome jaietan oro har, baina bereziki, Txiki Eguna izaten da txarangaren eguna. **Mauxitxa** txarangaren bueltan biltzen dira herri-tarrak Txiki Egunean. Ume, nerabe, gazte eta adineko, denak bat eginda ospatzen dute Txiki Eguna **Mauxitxaren** doinuekin dantzan eta kantuan. **Berezia** da Txiki eguna elgoibartarrentzat, eta baita **Mauxitxa** txarangarentzat ere. Aurten 50. urtez ir-tengo dira Elgoibarko ka-leak alaitzera. **50 Txiki Elkarrekin** lelopean, are bereziagoa izango da aur-tengoa.

- AINHOA ANDONEGI-



▶ EÑAUT IZAGIRRE ETA ALAITZ ALMORTZA

MAUXITXA TXARANGAKO KIDEAK

“Txiki Eguna zer den ulertzeko bizi egin behar da”

♦ **50 Txiki Elkarrekin. Ospatzeko moduko urteurrena duzue aurtengo Txiki Egunean.**

Eñaut Izagirre: Bai. Txarangak 25 urte bete zituenean batu ziren lehenengo aldiz ospakizun berezi bat egiteko, eta urtemuga hura askok gure aiten bitartez bizi izan genuen. Gero, 40. urteurrena etorri zen, eta hori txaranga barrutik bizitzeko aukera izan genuen batzuk, eta ia konturatu gabe hamar urte pasatu dira, eta 50. urteurrenaren atarian gaude. Mende erdia ez da broma, eta Elgoibarrentzako **Mauxitxa** zer den kontuan hartuta eta **Mauxitxarentzat** ere **Elgoibar** zer den ikusita, ospatu beharra zegoela pentsatu genuen.

♦ **Jaien hasierako txupinazoa botako du txarangak. Zer sentitzen duzue?**

E.I.: **Mauxitxa** sortu zutenek botako dute txupinazoa. Txarangatik jende asko pasatu gara, baina pentsatu dugu sortzaileek erreko-nozimendu bat merezi dutela, orain dela 50 urte txaranga sor-tzeko ideia beraiena izan zelako. Sortzaileen talde hartatik batzuk falta dira, eta urteurren hau baliatuko dugu baita ere txarangako

hildako kideei omenaldi txiki bat egiteko. Sei dira: Bittor Alberdi *Patxillo*, Victor Zubiaurre, Jose Angel Zubiaurre, Jose Miguel Az-koitia *azkoitxi*, Jose Inazio Sarasua eta Aitor Larrea *Larru*.

♦ **Nola bizi duzue Txiki Eguna?**

Alaitz Almortza: Ni orain dela hiru edo lau urte sartu nintzen txar-angan, eta niretzat ez dauka zerikusirik lehengo Txiki Egunak eta oraingoak. Oso desberdina da Txiki Eguna txaranga kanpotik edo barrutik bizitzea. Dianako dultzainen lehen doinuak entzuten ditudan momentutik urduritasun moduko bat igartzen dut gorpu-tzean; emozioa izaten da. Txarangari esker horrelako egun bat edukitzea herrian sekulakoa da. Zorte handia daukagu Elgoiba-rren. Nik uste dut beste herrietan ez dagoela horrelakorik.

E. I.: Ezetz esango nuke. Antzekoena Tolosan gertatzen dela esango nuke, inauterietan. Iruñean ere peñek txarangarekin egiten dute kalejira sanferminetan, baina Elgoibarkoa desberdina da. Herri guztia biltzen da txarangaren bueltan. Umeak, gazteak, hel-duak... denak. Denek daukate lekua txarangaren bueltan eta inor ez da lekuz kanpo sentitzen. Oso berezia da. Txarangako talde-



kide batzuk bezperatik hasten gara prestatzen. Iluntzean elkartzen gara, eta denok egoten gara urduri, emozionatuta. Gau horretan nik sekula ez dut ondo lo egiten.

♦ **Txiki Eguna beti izaten da berezia, baina aurtengoa bereziagoa izango da zuentzat. Zer egingo duzue?**

E.I.: Goizean goiz hasiko dugu, dianarekin. Gero gosaltzera joango dira batzuk, besteak sokamuturrera, eta 11:00ak aldera hamaiketako egingo dugu. Txaranga ibili diren musikari guztiak gonbidatuko ditugu Txiki Egunera, eta 12:00etan argazki ofiziala aterako dugu. Bakoitzak bere instrumentua ekarriko du, eta elkarrekin joko dugu kalejiran zehar. Ibilbidean zehar geldialdi batzuk egingo ditugu urte hauetan Mauxitxaren lagun bereziak izan diren hainbat establezimendutan, beraiei ere eskerrak emateko. 14:00etan Kultur Etxe aurrean herritarrekin beste argazki bat ateratzeko asmoa daukagu, eta gero Errosario kalean sartuko gara. Zaila izango den arren, aurten denborak hobeto zaintzeko ahalgina egingo dugu, gero Sigman daukagulako bazkaria. 17:00etarako 850 lagun eraman behar ditugu Sigmara, eta hori ez da erraza izango. Oso harrera ona izan du bazkariak, eta pozik gaude. Euskal Parrilak eskainiko du. Esan genienean 850 lagun izango ginela eta bazkaria 17:00etan izango zela, ezin zuten ulertu. Txiki Eguna daukan beste berezitasun bat da hori. Ez dago ordutegirik. Urteren baten arratsaldeko 19:00etan oraindik bazkaldu gabe egon izan gara.

♦ **Enkargatu al duzue Txiki Egunerako eguraldi ona?**

E.I.: Ez pentsa eguraldia hain garrantzitsua denik. Euri asko egin izan duenean ere ondo pasatu dugu elizako arkupeetan. Egia da urak instrumentuei kalte egiten diela, eta eguraldi eguzkitsuarekin dena hobeto joaten dela, baina gu dena emateko prest gaude.

A.A.: Eguraldi onarekin politagoa da. Etxeatik ere ura botatzeko, jendea bustitzeko eta ardoarekin zikintzeko hobeto da egun eguzkitsua egitea, baina hori ez dago gure esku.

♦ **Nola azalduko zenikete Elgoibarkoa ez den bati zer den Txiki Eguna?**

E.I.: Oso zaila da. Txiki Eguna zer den ulertzeko bizi egin behar da. Herri oso bat txarangarekin bat eginda eta horrelako festa giroan ez da herri askotan ikusten. Denontzako festa bat da, egun horretan kanpoan bizi diren elgoibartar asko etortzen dira herrira, eta hori oso polita da. Elgoibarkoak ez direnak harrিতa geratzen dira Txiki Egunarekin.

A.A.: Txiki Eguna ezagutzen ez duen batek ezin du ulertu hau zer den, hitzekin ezin delako azaldu. Txaranga herriko belaunaldi guztiak batzen ditu, eta festa guztia txarangen inguruan izaten da.

♦ **Txiki Eguneko musika errepertorioan zein abesti ezin da faltatu?**

E.I.: Egun horretan inprobisazioak ere izaten du lekua, baina nolabaiteko ordena mantentzen saiatzen gara. Lander Azpiazu da zuzendari musikala, eta berak gidatzen ditu musikariak. Azken urteetan saiatzen gara indarrean dagoen abestiren bat jotzen, eta horiek gehienetan inprobisatuak izaten dira. Iaz Huntzaren *Alda-*

pan Gora jo genuen, eta hori aurrez prestatu genuen, baina regeton estiloko abestiak ateratzea oso erraza da. Bat hasten da eta besteek jarraitu egiten diote, eta abestia irteten da. Baina egia da beti jo beharreko abesti batzuk badaudela, adibidez, *La Loles*, *Pakito txokolatero*, *Te quiero México...* Abesti horiek ezin dira falta.

♦ **Ospakizunen barruan Txiki Eguna leku berezia izango du, baina urte osorako egitaraua prestatu duzue, ezta?**

E.I.: Bai, hori da. 40. urteurrenean Txiki Eguna mugatu ginen, baina aurtengoa zabalagoa izango da. Jaietako txupinazoa Mauxitxak botako du, eta horrekin hasiko da ofizialki urteurrena, baina guretzako hasierako ekitaldi nagusia Txiki Egunean iritsiko da. Egun horretan hasiko gara txaranga buruzko dokumentala grabatzen ere. Txiki Eguna izango da dokumentalaren oinarria, baina gauza gehiago ere sartuko ditugu. Abenduan estreinatuko dugu lan hori. Azaroan argazki erakusketa bat ere egingo dugu txarangen historia azaltzeko, Morkaikoren Egunean, txaranga alardea egingo dugu, Trinitate jaietan erraldoien alardea, sagardotegira ere joango gara, bandarekin kontzertu berezi bat emango dugu... Eta amaiera datorren urteko Soroluzeko jaietan egingo dugu. 1970ean, txaranga sortu zutenean, lehenengo emanaldia han egin zuten, eta han amaitzea polita iruditu zaigu. Eta beste sorpresa batzuk ere egongo dira tartean.

♦ **Txaranga paper garrantzitsua dauka sanbartolomeetan. Imajinatzen al duzue txaranga gabeko jairik?**

E.I.: Askotan pentsatu izan dugu hori!. Nik zaila ikusten dut. Txiki Eguna bat Mauxitxarik gabe ez litzateke gauza bera izango. Egun horretan herria eta Mauxitxa bat eginda egoten dira.

A.A.: Txaranga gabe ez litzateke izango Txiki Eguna. Egun horretan txaranga festako osagai nagusia.

♦ **Nola ikusten duzue txarangen etorkizuna?**

E.I.: Ondo. Orain momentuan txaranga lantaldean 26 lagun daude. Aktibo daudenak 15-16 izango dira, eta hori nahikoa da. Instrumentu aldetik orekatuta eta osatuta dago. Elgoibar herri oso musikala da, musika talde eta musikari asko daude, eta Inazio Bereziartua musika eskolak ere lan handia egiten du. Beti Sua txaranga gaztea ere sortu dute, eta hori Mauxitxarentzat harrobi garrantzitsua da. Azken urteotan gazteak sartu dira txaranga, eta seguruenik 28-30 urteren bueltan gabiltzan sezazpi lagunek aurten utziko dugu. Eta egia esaten badizut, ez dakit txaranga utzi ostean nola biziko dudan Txiki Eguna. Pentsatzen dut txaranga lagunekin ospatuko dudala egun hau. Kuadrillakoekin ere bai, jakina, baina aurreko belaunaldietan ere ikusten ditugu kuadrillakoak ez diren lagunak elkarrekin. Nire kasuan, asko bidaiatzen dut, eta txaranga herriarekin lotura mantentzen ere lagundu dit.

A.A.: Azken urteetan 18 urte inguruko bost bat kide sartu gara. Hiru neska gaude txaranga: Ainhoa Ugalde, Noemi Araujo eta ni. Ez dakigu zergatik, baina txaranga instrumentuak mutilek jotzen dituzte batez ere, instrumentu maskulinoz hartzen dira. Askokostatzen da neskak instrumentu horiekin ikustea.



^San Bartolome
JAI ZORIONTSUAK
opa dizkizuegu. ^



Sukaldeak - Komunak - Altxariak - Erreformak

ETXEKIT

zubacor

ONDO PASA SAN BARTOLOME JAIAK

www.zubacor.com - zubacor@zubacor.com
Tel.: 943 740 844 - Faxe: 943 742 666



UNCETA

Unceta Taldeak

jai zoriontsuak opa dizkizue



UNCETA
Herramientas de calidad

Erreminta industrialen
hornitzaile liderrak

943 74 40 00
www.unceta.es



SARIKI
METROLOGIA

Metrologia adimendua
fabrikazio prozesuetan

943 74 38 08
www.sariki.es

LABMETRO
Laboratorio de Metrología

Kalibrazio laborategia

943 74 38 30
www.labmetro.es



GABILONDO

ETXE AGENTZIA



Edurne Gabilondo Loyola

Zuzenbidean litzentziatua
Higiezin sektoreko peritu ofiziala

www.inmobiliariagabilondo.es

San Frantzisko 51, beheak - Elgoibar

943 744 467

Ondo pasa jaietan!



Elgoibar BHI

www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI

Arregitorre 2

Tel.: 943 899 316

E-posta: 01343faa@hezkontza.net



Jai zoriontsuak!



Gaizka Uranga

Dantzaria

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantzari zela egin zen ezaguna txapelketetan batutako lorpenei esker, eta aurten, 17 urte beteta, Haritz Euskal Dantzari Taldean sartu da. Soka-dantzan parte hartuko du aurten estreinakoz, baina sanbartolomeetako beste hainbat ekintzetan ere topatuko duzue. Sanbartolomeak dena emanda bizi dituela dio eta ahalegintzen dela, lo-orduak egitarauaren arabera planifikatuta, ahal duen guztian parte hartzen.

- AINARA ARGOITIA -



“Polita da lehen gu egoten ginen moduan orain beste ume batzuk guri begira ikustea”



♦ **Gauz ere irteteko sasoian dagoen zure moduko gazte batek nola egiten du egunez ere horrenbeste ekitalditara iristeko?**

Ahal den moduan. Gava gustatzen zaigu, baina beti gordetzen dugu indar pixkat egunerako. Sanbartolomeetan urtean zehar baino siesta gehiago egiten ditut. Hartzen dut egitaraua, aukeratzen ditut ikusi nahi ditudan ekitaldiak eta horren arabera antolatzen ditut loak. Ondo jatea eta ondo hidratatzea ere funtsezkoak dira. Hori dena eta gaupasak tamainan egitea, goizeko zezenera iritsi nahi bada. Hori ere gustatzen zaidalako. Ez naiz zezenaren aurrean ibiltzekoa, baina ikustera joaten naiz.

♦ **Dantza mundutik ezagutzen zaitugu, baina jaietan beste ekitaldi batzuetan ere parte hartzen duzu. Iaz, esaterako, goitibeheretan ere ikusi zintugun.**

Bai, lehenengo aldiz iaz jaitsi nintzen goitibeheran Miguel Berazarekin. Miguel esan zidan bere osaba batek bazuela goitibehera bat eta animatu egin ginen. Beti gustatu izan zaizkit goitibeherak. Elgoibarko Udalak trizikloak egiteko tailerra antolatu zuenean ere eman nuen izena, eta han, afizioa handitu zitzaidan. Sanbartolomeetan ere jaitsi nintzen triziklo horietako batean, baina goitibeheran jaitea beste kontu bat da, azkarrago jaisten delako. Oso jaitsiera polita izan zen. Hartu genuen golpea ere, baina nahiko ondo ibili ginen eta elgoibartarren artean saria ere jaso genuen. Lehenengo aldirako, ezin hobeto. Eta gehiago, kontuan izanda aurrez goitibehera probatu gabe joan ginela, zuzenean aldapara. Jendetza handia batzen da San Rokeko aldapan eta ikusgarria da, nahiz eta goitibeheran datorrenak ez daukan horri erreparatzeko as-



Miguel Beraza eta Gaizka Uranga, iaz, San Roken beheara, eta eskuinean, Maialen Gurrutxagaren eskutik saria jaso ostean.

tirik. Minik ez hartzea izaten dugu buruan, besterik ez. Aurten ere badaukagu goitibeheran jaisteko asmoa Miguelek eta biok.

◆ **Haritz dantza taldean ere sartu zara aurten. Horrek zure jaietako agenda are gehiago beteko du, ala?**

Bai, aurten sartu naiz Haritzten, Miguel Beraza, Ainara Burunza, Eider Cerdeira, Irati Marcos, Mikel Juaristi, Maider Mantecón, Maria Galdos eta Oihane Agirrebeñarekin batera. Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdian ere parte hartu nuen, eta irailean, seniorren txapelketan ere izango naiz. Sanbartolomeetan, dantza solte txapelketa, soka-dantza eta erraldoi eta buruhandien kalejira antolatzen ditu Haritz dantza taldeak eta nik azkeneko bietan parte hartuko dut. Soka-dantzan estreinakoz ariko naiz, baina erraldoiekin dantzan ibili izan naiz aurrez. Iaz, Azpeitiko alardean parte hartu nuen lehenengoz [aurten ere izatekoa zen], eta geroztik Elgoibarren ahal izan dudan guztietan parte hartu dut. Politia da lehen gu egoten ginen moduan orain beste ume batzuk guri begira ikustea.

◆ **Kuadrillako asko ez dituzu eramango zu ikustera, ala?**

Denek ez dute ulertzen, ez, eta nahiago izaten dute lo egin soka-dantzara joan ordez. Baina soka-dantza gure kultura da, eta merezi du ikusteak. Haritz

dantza taldea ere soka-dantzari eusteko sortu zuten. Guri hori erakutsi digute beti etxean, kultura zaintzeko. Gure familiak kultur ekintzetan parte hartzen du. Santaeskean ere ume-umetatik ibili izan naiz ni Etxegiñarekin eta nire osaba Elgoibarko Izarrakoekin ibili ohi zen eskean. Dantza ikuskizunetara ere beti joan izan gara, eta zer esanik ez folklore jaialdira. Ospe handia daukan jaialdia da, ikusgarria eta merezi duena.

◆ **Erraldoiak aipatu dituzula ezingo dugu aipatu gabe utzi duela urte batzuk urangatarrok etxean egindako erraldoi hura atera zenueneko.**

Duela lau bat urte izan zen hori, baina erraldoiarekin ibili zena nire anaia izan zen. Gure etxean beti egon da afizio handia. Ama ere oso zalea da, eta nire anaia ikaragarri gustatzen zitzaizkion. Etxean ere tabureteari ilea mozteko kapa jantzi eta erraldoietara jolasten zen, eta horregatik, bere urtebetetzeetarako erraldoi bat egin zioten gurasoek.

◆ **San Bartolome eguneko ekitaldi nagusia da soka-dantza, eta jendetza handia batu ohi da plazara urtero. Ardua bereziz bizi duzu?**

Plazara eginda nago, txapelketa askotan ibili izan naizelako, baina Haritz dantza taldearekin soka-dantzan parte hartzea gauza handia da. Ohore bat, baina ziurrenik egunean bertan urdurituko naiz pixkat bat, bai. Zaindu beharko gara

bezpera gauetan, plaza bete jenderen aurrean itxuran dantza egiteko. Egia esan Haritzten sartzea gauza handia izan da, dantzan hobetzeko aukera emateaz aparte, kanpora irteteko atea ere zabaltzen duelako.

◆ **Mendaroko San Joan bezperako erri-tuan ere parte hartu duzu aurten. Izar modura aurkeztu zintuzten gainera.**

Kar-jar. Bai, Miguelek [Beraza] ere egin zuen dantza, baina neu aipatu ninduten. Ez dakit zergatik. Orain bi urte ere egon nintzen ni Mendaron.

◆ **Bikote artistikoa da zuena orduan.**

Bai, kuadrillakoak ez gara, baina dantzari esker leku askotara joan gara elkarrekin eta harreman ona egin dugu.

◆ **Sanbartolomeetatik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Txiki Eguna. Mauxitxaren kalejira izugarria da, eta dena emanda ibiltzen gara. Urte gutxitan harrapatu dut, baina Txiki Eguna, azkeneko bi-hiru urteetan-edo, umetan kanpoan harrapatzen gintuelako, gurasoekin oporretan. Gazteen Eguna ere sekulakoa izaten da. Egia esan, dena gustatzen zait. Eskatzekotan gauza bat eskatuko nuke: musika aukera zabaltzea eta talde ezagun gehiago ekartzea. Gatibu bi urtean etorri da dagoeneko.

◆ **Zer mezu zabalduko zenuke jaietari begira?.**

Ondo pasatzeko, baina mugak errespetatuta. Ez pasatzeko.

ONDO PASA
JAIXAK!!



elgoibarko
herri eskola



Etorri eta teorikoa
atera ezazu 17
urte bete baino lehen!

Jai
zoriontsuak!



Santa Ana Kalea, 11 behea
20870 ELGOIBAR

943 741 011

elgoibar@autoescuelalarranaga.com

Mahasterreka Kalea, 10 behea
20570 BERGARA

943 761 663



Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO

Ondo pasa
jaietan!

Zerbitzu bakoitzean, toaila eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higienearen gaineko araudiak eskatzen duena betesiz.

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar buxkuntak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Kontsultatu hemen informazioa:

www.peluqueriajoseantonio.com



Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492



®

PNEUMAX

MIEMBRO DE
aiftop
Distribuidor y representante

AEMOR
R
Estrutura
registrada
S.L. (2004/2005)



Olaso kalea, 15 eraikina, Pab. 52 - 53 - 54
Elgoibar (GIPUZKOA) - 943 74 41 44 - Web: www.pneumax.es

AUTOMATIZAZIO NEUMATIKORAKO OSAGAIK

SAN BARTOLOME JAIAK 2019



Naia Membrillera Janeirok irabazi du 2019ko San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa, *Herriaren soinua* izeneko lanarekin. Zazpi lan aurkeztu dituzte lehiaketara, eta hemen goian duzuen Membrilleraren lan honek jaso du 700 euroko sari bakarra. Programaren azala aukeratzeko lehiaketarekin batera, Jaietako Haurren Kartel Lehiaketa ere antolatu du Udalak. Hamabi lan aurkeztu dituzte lehiaketara, eta honako hauek saritu dituzte: Irati Uzkudun Cabezudo (14 urte), Nahia Baskaran Beristain (11 urte), Elaia Etxaniz Irureta (10 urte), Iñigo Merino Corbillón (9 urte), Ekain Soto Bereziartua (9 urte) eta Leire Etxaniz Bereziartua (7 urte).

Trapatres
Jurdes

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10
943 256 105

Ile eta buru-azalerako
tratamendu organikoak.

Abuztuan egun hauetan zabalik

✦ Abuztuak 21-22
✦ Abuztuak 23: 08:00-12:00
✦ Abuztuak 30-31

**Jai zorionsuak
herritar guztiei!**



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
MARKA GUZTIAK

943 741 480

Aitor: 606 975 730
Anton: 680 356 573
Faxa: 943 031 576 Olaso, 17 - Elgoibar



ASESORIA
GOAR

KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA

San Bartolome, 2 behean - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129

ABUZTUAK 22, EGUENA

Jubenil mailako futbol txapelketa: Mintxetan.
Antolatzailea: C.D. Elgoibar eta Udal Kirol Patronatua.

- **10:30** Osasuna - Valencia
- **12:00** Real Sociedad - Alaves
- **17:00** 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida.
- **18:30** Finala

19:00 laz jaiotako umeei ongi-etorria egitea. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:30 Kirol Argazkien Lehiaketako lanen erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Irailaren 1era arte. Egutero, 18:30etik 20:30era, 25ean eta 26an izan ezik.

Jarraian, Jaietako Kartel Lehiaketako sari banaketa, Kultur etxeko erakusketa gelan. Ekitaldi berean, Kirol Argazkien Lehiaketako sariak ere banatuko dira.

San Bartolome bezpera.....

ABUZTUAK 23, BARIXAKUA

9:00 Etxaniz Memoriale txirrindulari lasterketa, 23 urtez azpiko afizionatu mailakoentzat (19-22 urte). Lasterketa hau puntuagarria izango da Lehendakari Txapelketarako. Antolatzailea: Gure Bide Txirrindulari Elkarte. Irteera: 9:00etan, Kalegoen plazan. Helmuga: 12:00ak inguruan, Pedro Migel Urruzuno kalean. Sari banaketa: 12:00etan, Kalegoen plazan.

10:00etatik 12:00etara Kalegoengo San Bartolome parrokiara bisita gidatua. Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek gidatuko dute.

10:30 Jaien hasiera, San Lazaro Egoitzako eta Eguneko Zentroko nagusiei zapi gorria jartzearekin batera.





12:30 Larrain-dantza herrikoia. Kalegoen plazan.

13:00 Txupinazoa eta kanpai jotzea, jaien hasiera iragartzeko. Aurten, txupinazoa Mauxitxa txarangak botako du, 50. urteurrena ospatuko duelako.

Jarraian, Mauxitxa txarangaren kalejira.

16:00 - 20:30 haurrentzako parkea, Aita Agirre plazan eta Bolatokian. Euria bada, Sigman.

16:00 - 19:30 Kart-ak, Kalegoen plazan.

16:30 Sorpresa, Jubilatuen Biltokian.

17:30-19:00 Erraldoi, buruhandi eta zezen-zikleten kalejira, Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.

Jarraian Mauxitxa txarangaren kalejira Danborradarekin batera. Kalebarren plazatik.

20:00 Inazio Bereziartuaren Salbea, Parrokiako Abesbatzak kantatua, San Bartolome parrokian. Udaltzako Parrokiara bertaratu da, Udalaren Txistulari Taldeak lagunduta.

23:00 Mafalda musika taldearen kontzertua, Kalegoen plazan.

Cristina Garcia
 Estetika eta Terapiak Naturalak

Ondo pasa jaixetan!

943 74 29 50
 Errosario kalea 19
 20870 - Elgoibar (Gipuzkoa)

Jon Aranoa
 Guillermo Torres

Elgoibar
 Albaitaritzza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Astelehenerik ezinlarik: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopiniologi zerbitzua daukagu.
 Dena ordua hartzeko.

MILAR BIRE

- Garbigailuak • Roonba •
- Tabletak • Telefono libreak •
- Aspiragailuak • Ile-lehorgailuak •
- Telebistak • Hozkailuak •
- Berogailuak • Labeak • Indukzioa •

Ondo pasa jaixetan!

Ubitarte, 11 - Elgoibar
 943 741 487
 bire@milar.es



MAPFRE

943 740 582

Faxa: 943 741 707

San Frantzisko, 40, behea • patxiza@mapfre.com



Tel: 943 74 25 67 • 626 591 658
jasone@jasonesg.com
www.jasonesg.com
 ELGOIBAR

*ondo pasa
jaietan!!!*

- Irudi korporatiboa
- Lan komertzialak
- Liburuak, Katalogoak
- Liburuxkak, Egutegiak
- Menu kartak, etab.

FORMATO HANDIKO ARGAZKIAK
 KARTELAK EDOZEIN TAMAINATAN

ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta
 konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.

San Bartolome eguna.....

ABUZTUAK 24, ZAPATUA

9:00 Iruñeko eta Guardiako dultzaineroen diana.

9:45 Udal Txistulari Taldearen diana.

10:45 Herriko zaindariaren prozesioa. Udalbatzak parte hartuko du, Udal Musika Bandarekin eta Udal Txistulari Taldearekin batera.

11:00 Meza nagusia. Udalbatzak parte hartuko du. Mezatan, Parrokiako Abesbatzak, Udalaren Txistulari Taldeak eta Haritz EDTk parte hartuko dute.

Ordu berean, Udal Musika Bandaren kalejira.

Jarraian, soka dantza. Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Udaleko Txistularien Bandak eskainia, Kalegoen plazan.





Ondoren, Udal Musika Bandaren kontzertua. Kalegoen plazan. Elgoibarko dultzaineroekin.

- Merry go round (Philip Sparke)
- Ascentium (Ed Huckedby)
- At dauw they slept (7/12/1941). Arr. Jay Bacook.
- Fuenterrabia - Hondarribi (Tomas Aragües)
- Vals de ejecución (N. Garcia/ Mold. Juanma Saez)
- Espérame en Elciego (Arr. Iñaki Urkizu)
- Gora Mauxitxa 50. Txiki eguna ospatzen (Txomin Mujika)

16:00 - 20:00 Haurrentzako parkea. Aita Agirre plazan eta Bolatokian. Euria bada, Sigman.

16:00 - 20:00 Quadak, Kalegoen plazan.

17:30-19:00 Erraldoi, buruhandi eta zezen-zikleten kalejira. Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.

18:00 Profesional mailako San Bartolome Pilota Txapelketako finalerdia. Ikastolako frontoian.

19:00 'Prozak' ikuskizuna Malas Compañiasen eskutik, Kalebarren plazan (euria bada, Maalan).

23:00 The Etta James Experience eta Noa Voll Damn & The hell Drinkers taldeen kontzertua, Kalegoen plazan.

HAIR'S ileapaindegia
San Bartolome, 6 behea
943 531 279

ABUZTUKO ORDUTEGIA:
09:00-14:00

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN EGUNA

Orraztu
9€
Garbitu, moztu
eta orraztu
18€

Ondo pasa jaietan!

BM Termoplastiko eta Korpositiben
Mekanizazio lanak
Metal Ez-Ferrikok
bronymec

@BronymecSA

KARAKATE
Jatetxea

Sanbartolomeetako
menua **28€-tan**
deitu **627 396 492**
zenbakira.

Olasope, 1 - Elgoibar

karakatejatetxea@hotmail.com

SEGUR-arno
ASEGURUAK
PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

SEGUR-arno COMPAÑIA DE SEGUROS
Y ASESORIA AUTÓNOMAS

Ondo pasa jaietan!

Deba kalea 2, behea - 20870 **ELGOIBAR** (Gipuzkoa)
Telf.: 943 74 80 13 - Fax: 943 74 81 35
segurarno@segurarno.com - www.segurarno.com

A HOLKULARITZA

BIKAIN

ASESORIA

Tel.: 943 744 557
 Faxa: 943 740 408
 e-posta: bikain@bikainasesoria.com

- 📍 Zerga-aholkularitza
- 📍 Lan-aholkularitza
- 📍 Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea
 20780 ELGOIBAR



SURYA
 BELAR-DENDA

📞 943 742 534 📞 630 878 054

📧 surya-belardenda@hotmail.com
 San Frantzisko, 23 - Elgoibar



0

OLAIA
 MARTINEZ
 ESTETIKA ZENTROA

Trenbide kalea, 21 behe, ezk.
 Elgoibar

943 242 805



Ondo pasa jaixetan!

EDERGINTZA ETA ERLAXAZIO TRATAMENDUAK

ONDO PASA
 JAIETAN...

nava@euskalnet.net



NAVA



INPRIMATEGIA

Jubilatuen eguna.....

ABUZTUAK 25, DOMEKA

8:00 Diana herriko dultzaineroekin.

Jarraian, sokamuturra. Arnoren zezenekin. King-Kong-etik. 8:45ean, Kalebarren plazan. 10:00etan, Kalegoen plaza.

12:00 Hegaluze-parrillada, Eusko Labelduna. Kalebarren plazan. Antolatzailea: Atabal Danborrada Elkarte.

12:30 Jubilatuei bereziki eskainitako meza. San Bartolome parroki.

14:30 Jubilatuen bazkaria. Olaizaga kiroldegian. Bazkaria Eguren Orkestrak girotuko du.

17:00 Profesional mailako San Bartolome Pilota Txapelketako Finala. Ikastolako frontoian.

19:00 Dantza Soltoko lehiaketa. 16 urtetik beherakoentzat, Kalegoen plazan. Antolatzailea: Haritz EDT, Udal Txistulari Taldearen laguntzarekin.





Umeen eguna.....

ABUZTUAK 25, DOMEKA

11:45 Haurrentzako entzierroa. King-Kong-etik Aita Agirre plazaraino.

Jarraian, zezentxoak eta pottokak txikientzat. Aita Agirre plazan.

11:30 - 12:15 Marrazki lehiaketarako izen-ematea, elizako arkupeetan. Antolatzailea: Gurutze Gorria (ordurako eman beharko da izena, jarritako ordutik aurrera ez da inor onartuko). Gaia: Mauxitxa Txarangaren 50. urteurrena.

12:30 Marrazki lehiaketaren hasiera. Elizako arkupeetan.

13:45 Marrazki lehiaketako lanak jasoko dira. Elizako arkupeetan.

14:00 Haurrentzako bazkaria, elizako arkupeetan. 7-12 urte bitartekoentzat.

Jarraian, Kulki, industriaren jolasak. Kalegoen plazan.

17:00 Marrazki lehiaketako sari banaketa, Kalegoen plazan.

Jarraian, erraldoi, buruhandi eta zezen-zikleten kalejira. Mauxitxa txarangarekin batera. Haurrak mozturuta joatera animatu dituzte.

19:00 'Zirika Zirkus', Ondorengoak antzezlanarekin. Maalako parkean.

22:30 Obaneuke taldearekin, dantzaldia. Kalegoen plazan.



**Ondo pasa
sanbartolomeetan!**

**PSE-EE
PSOE**





Elgoibarren
bizi, erosi
herriak irabazi

TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIAK

Ondo pasa jaietan!



Euskadi, azaluzen, bizi conatin

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKO MERKATARIEN
ELGOIBARKO JAIA

DEPARTAMENTO DE COMERCIO
INDUSTRIA Y TURISMO

Txiki eguna.....

ABUZTUAK 26, ASTELEHENA

8:00 Mauxitxa txarangaren eta Elgoibarko dultzaineroen diana.

Jarraian, sokamuturra Arnoren zezenekin. 8:45ean, Kalebarren plazan; 10:00etan, Kalegoen plazan.

Ondoren, salda eta txorizo banaketa. Herriko kaleetan. Karakate, Ego Toki, Zubi Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide elkartearen eta Batzokiaren eskutik.

12:00 Ikuskizun pedagogiko musikala: 'Reziklator', Aita Agirre plazan.

12:00 Mauxitxa txarangaren kalejira: '50 Txiki elkarrekin'.

13:00-15:00 'Jaietan ere, ezetza ezetza da' fotokola. Kalebarren kalean.

13:30 Uluka batuka, batukada erreibindikatzailea. Kalebarren kalean.

17:00 Herri bazkaria: '50 Txiki elkarrekin'. Mauxitxak antolatuta, Sigmako aparkalekuan.

17:30 Haurrentzako egurrezko jolasak. Bolatokian.

17:30 Nerabeentzako paintball-a. Aita Agirre plazan.

18:00 Profesionalen arteko esku pilota jaialdia. Ikastolako frontoian.


20:00 Rockkalean. Sigmatik hasita.

ABUZTUAK 27, 28 ETA 29

22:00 Kintopekoen idi probak, Sigmako probalekuan. Antolatzailea: Sigma Probaleku Herri Kirol Elkarte.

ABUZTUAK 28, EGUAZTENA

18:30 Futbola: Haundi taldearen aurkezpen partida: C.D. Elgoibar - Ondarroako Aurrera. Mintxetan.



Gazteen eguna.....

ABUZTUAK 30, BARIKAKUA

8:00 Diana Elgoibarko dultzaineroekin.

Jarraian, sokamuturra Arnoren zezenekin. 8:45ean, Kalebarren plazan; 10:00etan, Kalegoen plazan.

Ondoren, salda eta txorizo banatzea. Herriko kaleetan. Karakate, Ego-toki, Zubi-ondo, Herri-Gain, Goiko Errota eta Gure Bide elkarten eta Batzokiaren eskutik.

12:00 Goitibehera eta Drift Trike jaitsiera, Azkuen (San Roke). Antolatzailea: Gurutze Gorria. Izena ematea: irteeran bertan. 11:30 arte. 14tik 18 urtera bitarteko partaideek gurasoen baimena beharko dute. Araudi guztia ikusteko: www.elgoibar.eus.

Jarraian, Mauxitxa txarangaren kalejira.

18:00 - 19:00 Funbox factory: Moto trial ikuskizuna. Kalegoen plazan.

Ondoren, Kolpez blai! perkusio taldearen kalejira. Kalegoen plazatik.

19:00 Eskubaloia: Alarcos Ciudad Real - Bidasoa Irun. Sanlok antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

19:30 - 22:30 Skate jaialdia, Mintxetan. Erakustaldia, Djak, foodtruck. Instagram lehiaketa egun guztian zehar. Sari banaketa 22:30ean, Skate Parkean.

23:00 Esne Beltza, Maalako parkean.

LAGUNAK *Ondo pasa jaiak!*
colchonaria textil hogar
SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com
943 744 457

**Gozo goza jaiak.
Eraso matxistarik ez!**

elgoibar
ehbildu



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel.: 943 74 02 84 Elgoibar

Osasun gida - Osasun gida
Osasun gida - Osasun gida
Osasun gida - Osasun gida
Osasun gida - Osasun gida
Osasun gida - Osasun gida

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 963 688
www.fisio-mas.com

RPS 177/02

federópticos
ikus

RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Jeku eder
hortz klinika

RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola

GIZA EUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

FUB Fernando
Urizar
Barandiaran

R.P.S.: 32/17

Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1, ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

Baserritarren eguna.....

ABUZTUAK 31, ZAPATUA

9:30 Ganadu Lehiaketan parte hartuko duten abeltzainei harrera. Haritz Euskal Dantzari Taldearen eta Udal Txistulari Taldearen eskutik. Kalebarren plazan.

Jarraian, Baltzola eta Lagunak trikitilarien kalejira.

10:30 Gipuzkoako Limusin Ganadu Txapelketa. Sigmako probalekuan.

11:00 Sagardo Txapelketa eta dastatzea. Kalegoen plazan. Antolatzailea: Sallobente Elkartea.

11:00 Gazta Txapelketa eta salmenta. Kalebarren plazan. Antolatzailea: Kalamua Elkartea.

12:30 Elgoibarko kale kantariak. Giroa alaituko dute euskal abesti herrikoiekin. Kalebarren plazan hasita.

13:00 Sagardo Lehiaketako sari banaketa, Kalegoen plazan.

13:30 Ganadu Lehiaketako sari banaketa, Sigmako probalekuan.





13:30 Bertsolariak, Uxue Alberdi, Xabier Arrizabalaga Ziarda eta German Meabebasterretxea. Kalebarren plazan.

Ondoren, Gazta Txapelketako sari banaketa. Kalebarren plazan.

17:00 Baltzola eta Lagunak trikitilarien kalejira.

17:00 Eskubaloia: Alcorta - Aviron Bayonnaise. Olaizaga kiroldegian. Antolatzailea: Sanlo EKT.

18:00 Mintxeta Memoriala: San Bartolomeetako harri-jasotze txapelketa. Kalegoen plazan (euria bada, Ikastolan). Bi harri irregular: Mintxeta harria eta Belaustegi harria. 5 minutu harri bakoitzarekin. Antolatzailea: Kalamua elkarte.

18:30 Aukeran, Fusioak ikuskizunarekin. Kalebarren plazan (euria bada, Maalan).

19:00 Eskubaloia: Alarcos Ciudad Real - Amenabar Zarautz. Olaizaga kiroldegian. Antolatzailea: Sanlo EKT.

23:00 Bideo mapping: Argi, bideo eta musika ikuskizuna. Elizan.

Jarraian, Mariatxiak: Puro relajo. Kalegoen plazan.

Ondoren, jaien amaiera: Bideo mapping, argi, bideo eta musika ikuskizunaren errepikapena. Elizan.

ARAMBURU
BTTXIDENDA

Ondo pasa jaietan!

San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

DOÑA MERCEDES
DENDA
San Frantzisko, 21 - Elgoibar
943 742 652

OBRADOREA
Olaso, 55 - Elgoibar
943 742 137

Ondo pasa jaietan!

IRIONDO
KIROLAK

MENDI eta KALERAKO KIROL MODA
ELGOIBAR

Ondo pasa jaietan!

TXILLARRE
eko denda

San Bartolome kalea, 29, behea
Elgoibar

943 537 806

ETXERA
ERAMATEKO
ZERBITZUA

*** Baserriko produktu ekologikoak.**
*** Garaian garaiko otarrak.**
*** Aukera zabala elikagai ekologikoetan.**
*** Kosmetika biologikoa.**
*** Banaketak: Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Deba.**
*** Sukaldaritza ikastaroak.**
*** Umeentzat tailerrak.**

p.ekologikoak@gmail.com



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN

Ondo pasa jaietan!

INGELES - FRANTSES - ALEMAN - ITALIERA - TXINERA

IRAILTIK HASITA 2019-2020 KURTZO IKASTAROAK

- Maila guztiak
- Titulu ofizialak.
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
- Ikastaroak atzerrian.
- Multimedia gela.
- Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera

ENPRESA ITZULPEN ETA INTEPRETazio ZERBITZUAK

- Esperientzia zabala duen lan taldea:
 - * Teknikoa (makina-erreminta)
 - * Komertziala
 - * Nazioarteko proiektuak.
- Goi-teknologiaren erabilera.
- Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa.
- Prezio lehiakorrak.

www.ils.es - ils@ils.es - Azkue auzoa (IMH) - 943 744 040 - Uparitzaga, 12 behe - 20870 ELGOIBAR



Meka

Lanbide Eskola

Ondo pasa San Bartolome jaietan!



Gora San Bartolome Jaiak!

Hemengoak izateaz harro

Gure eskualdeko ondarearekin gozatzeko 40 azukre-koxkor bilduma paregabea.



LOR ITZAZU ZURE BETIKO TABERNAN

www.urkotronik.com
943 203 112

Banatzaile ofiziala:
AZKOYEN





▶ IXONE AKARREGI DROGOMENPEKOTASUN TEKNIKARIA

Alkohola eta gainerako drogen kontsumoaren ondorioez ohartarazteko hainbat gune edo egitasmo antolatu ditu Elgobarko Udaleko Ongizate Sailak sanbartolomeetarako. Adikzioen inguruko prebentzioan aspalditik lanean diharduen Sasoia enpresak, esaterako, alkoholimetria postua jarriko du Bolatokian bezperan, eta Maalan, Baserritarren Egunean. Enpresa honek berak formazio saioak ere eskaini izan ditu urtean zehar Elgoibarko ikasteetxeetan.

- AINARA ARGOITIA -

“Emozioak landu behar ditugu gehiago, askok beren gabeziak mozorrotzeko baliatzen dutelako alkohola”

◆ Jaia eta alkohola horren eskutik bizi ditugun gure kultura honetan nola lantzen dira kontu hauek?

Hiru lan eremutan jarduten gara gu. Hezkuntza formalean ikasleekin lan egiten dugu, familientzako formazio saioak ere ematen ditugu eta aisialdian ere saiatzen gara gure helburuak betetzen. Adingabeek drogarik ez kontsumitzea da gure helburu nagusia, baina badakigu errealitatea zein den, eta horregatik, gutxienez kontsumitzen hasteko adina atzeratzea bilatzen dugu. Horretarako, eta prebentzio modura, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailakoekin hasita gaude lanean, 10-11 urteko gazteekin. Kontsumitzen hasita dauden gazteekin egiten den lanketa beste bat da. Horiei arriskuez ohartarazten diegu eta ahalegin berezia egiten dugu kontsumoa handitu ez dezaten, jakin baitakigu alkoholak atea zabaltzen diela beste substantzia batzuetara.

◆ Zein adinekin hasten dira drogak kontsumitzen eta zeintzuk dira adingabeek gehien kontsumitzen dituztenak?

Gure datuen arabera, alkohola probatzen 13 bat urterekin hasten dira, eta hilabete gutxira hasten dira tabakoa probatzen. Cannabisa 14 bat urte pasatxokoetan hasten da agertzen. Hailanda ere, bada datu esanguratsu bat LHko ikasleei kontsumo-ohituren inguruan azkena egindako galdeketatik jaso duguna. 77 laguni egin genien galdeketa eta gehienek erantzun zuten ez zutela edaten, baina 18,8k esan zuten probatua zutela noizbait alkohola. Etorkizun hurbil batean alkohola edango ote zuten galderari, berriz, %43k baietz erantzun zioten eta hor garbi ikusten da gizartearen islada: gazteek edaten dute erreferenteek edaten dutelako. Gure gizartean alkohol-kontsumoa erabat banalizatua eta onartua dago. Hori da kontua.

◆ Gurasoen kezka nagusia zein izaten da?

Bixia da, baina gurasoen kezka nagusia ez da alkohola. Sarri aipatu ere ez dute egiten, alkohola ez dutelako drogatzen hartzen eta ez direlako kontziente alkoholak adikzioa sor dezakeela. Drogomenpekotasunen gaineko formazio saio batera deitzen ditugunean, substantzia ilegalekin inguruan entzutera etortzen dira, eta hasten gatzazkienean alkoholari buruz hitz egiten aho zabalik

gelditzen zaizkigu. ‘Alkoholaren kalteak ez dira horrenbestera-koak’ esaten digute. Gurasoen artean, batetik, begirada pasibodunak daude, uste dutenak gazteek alkohola probatu egin behar dutela, gure kulturari aisialdia eta alkohola eskutik joan direlako beti. ‘Nahiago dut neure aurrean edatea, ezkutuan edatea baino’ esaten dutenak badaude, baina hori ez lukete esango kokainaz adibidez, ezta? Zergatik bai alkoholarekin? Hor garbi ikusten da alkohola zein onartua daukagun. Batetik daude horiek, eta bestetik, alkohol kontsumo gehiegiak eta horren ondoriozko koma etilikoez kezkatzen dituztenak daude. Guraso horiek uste dute benetakoa arriskua hor dagoela, koma etilikoa harrapatzean, baina oker daude. Gazte horiek hazten ari dira eta euren garatze edo heltze prozesuan alkoholak eragin oso negatiboak dauzka. Zenbat eta gehiagotan edan, gainera, gorputzak tolerantzia bat garatzen du droga horrekiko eta horrek adikzioan jausteko arriskua handiagotzen du. Gertatzen zaiguna da uste oker asko daukagula alkoholaren inguruan, mito faltsu asko, eta horiek deusezteko ahaleginean ari gara familiekin lanean.

◆ Adibidez?

Alkohol kontsumoari balore emozionala aitortzen diote askok, eta hori zuzendu behar dugu. Gazte bati zergatik edaten duen galdetuz gero erantzungo digu hasteko nagusiek edaten dutelako edaten duela, baina aipatuko dizkigu beste arrazoi batzuk ere: alkoholak lotsa-puntua galtzen laguntzen diola, lagunak egitea errazten diola eta nolabaiteko lidertza eskuratzeko balio diola adibidez. Eguneroko eskakizunei eta erronkei arrakastarekin aurre egiteko zailtasunak lotura estua du alkoholaren kontsumoarekin, adin guztietan. Askok beren gabeziak mozorrotzeko baliatzen dute alkohola.

◆ Nola lantzen duzue hezkuntza emozionala?

Batetik, informazio objektiboa ematen diegu mito faltsu horiek gezurtatzeko, eta bestetik, bizitzarako trebetasunak edo gaitasun psikosozialak lantzeko erremintak eskaintzen dizkiegu gazteei. Alkoholaren eraginen inguruko informazioa egon badago, nahiz dagoen dena ez den zuzena, baina batez ere kontsumitzeko arra-



zoietan inziditzen dugu guk formazio saioetan.

♦ **Gaztetan, azkena heldu bati egiten zaio kasu sarri. Gerturatzeko hori nola egiten duzue?**

Gurekin, normalean, erabat zabaltzen dira gazteak, urtean behin ikusten gaituztelako, eta batez ere, ez dutelako epaituko ditugun beldurrik. Entzun egiten diegu, eta konfiantza giroa sortzen du horrek.

♦ **Sanbartolomeetan alkoholimetria guneak jarri ohi dituzte. Zein perfiletako jendea urreratzen zaizue?**

Adin guztiei zabaldua gaude eta etorri ere hala egiten zaizkigu, adin guztietakoak. Alkoholimetria, baina, 18 urtez gorakoei bakarrik egiten diegu. Adingabeak ere etortzen dira, hala ere, eta gehienek kezka berdina izaten da: zergatik berdina edanda bati gehiago eragin dio beste bati baino?. Halakotan alkohola kontsumitu izanaren ondorioetan dauden arrisku-faktoreak aipatzen dizkiegu: pisua izan daiteke bat, jan dutena beste bat, edari fermentatuak edo destilatuak edan dituzten, cannabis edo beste drogaren bat kontsumitu ote duten..., eta behin horiek aipatuta alkoholaren eragina minimizatzen dituzte ematen dizkiegu.

♦ **Garai batean baino gehiago edaten al da gaur?**

Ez. Gaurko gazteek ez dute guk gaztetan edaten genuena baino gehiago edaten, drogen kontsumoa oro har jaitsi egin delako, baina gertatzen dena da edateko era aldatu dela. Orain, arinago hasten dira edaten, edari destilatuak, graduazio handiagoak, edaten dituzte latsa-puntu hori azkarrago galtzeko, eta gainera, edaten dutena denbora espazio laburragoan edaten dute, azkarrago. Eta jakina, hiru faktore horiek batuta, gaur, arriskua handiagoa da. Baina egunero edaten dutenen kopuruak behera egin du.

♦ **Fokua gazteengan jartzen dugu sarri jaiaz eta alkoholaz ari garela, baina nago ez ote dugun argia helduengana zuzendu behar, ikusirik kontsumitzeko arrazoi nagusia zein duten gazteek. Zer lan egiten duzue karpaz hurbiltzen diren 18 urtez gorakoekin?**

Lehenengoarekin guztiz ados. Helduek egiten dutenaren ispilu dira gazteak, eta ezin ditugu haiek epaitu, guk egiten dugunari erreparatu barik. Alkoholimetria positibo ematen dutenei, berriaz, lehenengo kotxerik hartu behar ote duten galdetzen diegu. Baietz esaten badigute, eginahalak egiten ditugu konbentzitzen kotxerik har ez dezaten. Arriskuez ohartarazten diegu eta isunen eskuorria ere ematen diegu. Era berean, alkoholometro orientatibo bat ere ematen diegu, kotxea hartu aurretik erabili dezaketena jakiteko

kotxea hartzeko momentuan positibo emango duten edo ez. Hainbat galdera eginda edan duten kantitatearen arabera kalkulua egiten diegu jakiteko alkoholaren arrastoa ezabatzeko zenbat denbora behar duten gutxi gorabehera.

Eta gehienek ondo hartzen dituzte emandako aholkuak eta jaramon egiten digute. Konbentzitzen ditugu alegia.

♦ **Zein talanterekin gerturatzen dira gerturatzen zaizkizue-nak?**

Elgoibarren, normalean 00:00etan zabaltzen dugu karpaz eta 3:30ak aldera itxi. Lehenengo bi orduetan jendea interesatuta hurbiltzen da, alkoholaz eta bestelako substantziez galdetzeraz, baina ordu jakin batetik aurrera, kontsumoaren eragina nabarmenagoa denean, arpa jo gogoz edo zeinek gehiago ematen duen ikustera etortzen direnak gehiago izaten dira. Guk, baina, beti pasatzen dugu filtro bat, ez gaudelako txantxetarako. Alkoholometroan putz egin ahal izateko gutxienez hamabost minutu egon behar da edan barik, bestela ez dugu frogaz egiten. Etorri ahal dira eta gezurra esan, baina makinak igartzen ditu horiek, eta gezurretan dabilzanez guk ez diegu azalpenik ematen. Esan behar da berez alkoholaren prebentziora zuzendutakoa dela gure karpaz, baina adikzioetan trebatutako hiru tekniko izaten dira mahaietan, eta horiek prestatuta daude beste drogen inguruan azalpenak emateko ere. Drogak nahastearen arriskuez ere galdetzen du jendeak, eta hori ere azaltzen diegu. Nahasketa ohikoena alkohola eta cannabisarena da, baina droga ilegalen artean, gehien kontsumitzen

direnak, cannabis, kokaina, anfetaminak eta estasia dira, hurrenez hurren. Adinarekin asko aldatzen da, hala ere. Gazteen artean, cannabis, anfetaminak eta estasia dira zabalduenak.

♦ **Zein mezu zabalduko zenuke jaiei begira?**

Batetik, adingabeek ezin dutela kontsumitu eta beraz, legea bete eta beteaz behar dugula nagusiagok. Bestetik, helduei

“Ez dut abstinentzia eskatuko, baina arduraz kontsumitzeko esango nieke helduei eta adingabeen aurrean gutxiago edateko”

gogoraziko nieke gazteagoen eredu direla eta zaindu behar dutela egiten dutena. Ez dut abstinentziaren aldeko mezua zabalduko, bai baitakit horrekin ez goazela inora gure kultura honetan, baina kontsumo arduratsua egiteko eskatuko nieke eta adingabeen aurrean gutxiago edateko. Drogen kontsumoa normalizatu eta banalizatzen badugu, gazteei oso zaila egiten zaie drogen ondorio kaltegarrien kontzientzia hartzea. Ez gara alarmistak izan behar, baina daukan garrantzia eman behar diegu gai honi. Drogen kontsumoak eragin kaltegarriak dauzka, eta ez bakarrik kontsumitzen duenarengan. Gurasoei esango nieke aisialdirako beste planteamendu batzuk bilatu behar dituztela eta momentuak topatu etxean gazteekin alkoholaren eta beste drogen ondorioez hitz egiteko eta eurek drogekin izandako bizipenak kontatzeko. Eta guzti horrekin batera, konpetentzia emozionalak lantzeko eskatuko nuke, kontsumoa ere oso lotua dagoelako emozioekin.



'Botiltzarra' programa ibiltaria

Sasoian enpresakoek jarriko dituzten informazio postuez gain, *Botiltzarra* programa ibiltaria ere ekarriko du Elgoibarko Udalak sanbartolomeetara. Kalean alkohola edaten ari diren nerabe eta gazteen artean alkoholaren erabilerari lotutako arriskuak gutxitzea da *Botiltzarra* programaren helburu nagusia, eta horretarako, alkoholaren inguruko informazioa eta alkohola edateak dakartzan arriskuak murrizteko materiala banatuko dute Ai Laketekoek gazteen artean, bai eta bizikidetzatza sustatzeko hainbat gomendio eman ere.

Mozorrotuta eta orga txiki batzuk hartuta ibiliko dira sei teknikari kalean gora eta behera, eta gazteak biltzen diren lekuetara hurbilduta, konfiantzazko giro batean, aisaldi eta festa giroan ematen diren alkohol eta bestalako drogen gehiegizko kontsumoaren kalteez ohartaraziko diete. Era berean, alkoholaren eragina hobeto kontrolatzeko hainbat aholku ere emango dizkiete. Besteak beste, ondo jatea eta ura edatea zein komenigarria den gogoraraziko diete, eta alkohola beste drogekin nahasteak dakartzan arriskuen berri eman ere bai. Horretarako, ur botila txikiak eta jatekoa banatuko dizkiete beharra ikusiz gero, bai eta Eusko Jaurlaritzak argitaratutako pegatinak eta alkoholaren erregeletak ere. Era berean, plastikozko edalontziak ere banatuko dizkiete, gazteek edaten duten alkohol kopuruaren kontzientzia har dezaten, eta baita plastikozko zabor poltsak ere, sortzen duten hondakinak jaso ditzaten. Hori ere badelako programa honen helburua: kalean edateak herriko elkarbizitzan sor ditzakeen kalteak minimizatzea.

Bezpera egunean, 20:30etatik 00:30ak bitartean ileorde koloretsuak eta mantal txuridunak ikusiz gero erosketak egiteko orgei tiraka, ez kezkatu. Ai Laketekoak izango dira-eta.

SANBARTOLOMEETAKO PREBENTZIO GUNEAK

ABUZTUA 23, OSTIRALA

20:30 - 00:30 'Botiltzarra' programa, nerabe eta gazteen alkohol kontsumoari loturiko arrisku murrizketa programa herrian zehar.

22:00 - 01:00 Beldur Barik gunea. Sexu erasoaren prebentzio gunea. Kalegoen plazan.

22:30 - 01:30 Substantzien inguruko informazio eta testing gunea. Bolatokian.

ABUZTUA 30, OSTIRALA

22:00 - 01:00 Beldur Barik gunea. Sexu erasoaren prebentzio gunea. Maalan.

ABUZTUAK 31, LARUNBATA

22:00 - 01:00 Beldur Barik gunea. Sexu erasoaren prebentzio gunea. Maalan.

23:30 - 03:00 Alkoholimetria gunea. Alkoholaren kontsumoaren inguruko informazioa eta arrisku murrizketa adin guztietako pertsonentzat. Maalan.


23:30 - 03:00 Substantzien inguruko informazio eta testing gunea. Maalan.



MAQUINAS ESPECIALES



IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxes: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net

MAKINA BEREZIAK



Fotodepilazioa
egiten dugu

**ONDO PASA
JAETAN!**

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

ZA
ZURE ALDE S.L.

Nerea Olea Lequerica
Abokatua

Zibil-Jabetza horizontala
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 -behea
943 541 351 / 685 708 606

zurealde.elgoibar@gmail.com
Elgoibar

BARNE-ARKITEKTURA
(PROIEKTUAK / ERREFORMAK)
*Interiorismo eta Dekorazio
Estudioa*



**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Rosario, 15
ELGOIBAR
605 71 31 68
943 74 40 19

**ARMUETA
HARATEGIA**

ANGEL ARRIZABALAGA
San Bartolome, 16 - Elgoibar
943 740 640 - 630 225 428

Jatekoa prestatzen dugu enkarguz,
lagunarteko otorduetarako, zeln etxerako.
Piper beteak, albondigak, okela gisatua...

**ETXEAN
HAZITAKO
TXAHAL-OKELA**

Abuztuko ordutegia:
08.00etatik 13.00etara





MAFALDA. Abuztuak 23. Kalegoen plazan, 23:00etan.

Rock talde valentziarra da Mafalda, ezaguna Euskal Herriko agertokietan. 2010an sortu zuten taldea Turiako bederatziko musikaririk. Ska, reggae, funk eta hardrock musikaren nahasketa egiten dute. Ismael Senarro (Madril, 1974) abeslariaren Buenos Aires kantuan topatu zuten taldearentzako izena, Mafalda, eta protesta soziala egiten dute euren kantuetan. Lau disko dituzte argitaratuak: *Música basura* (2002), *Nos deben una vida* (2014), *La última vez que te escucho* (2016) eta *Palabras forman caos* (2018).



'PROZAK' ANTZEZLANA. ABUZTUAK 24, San Bartolome Eguna. Kalebarren Plazan, 19:00etan.



Batere ohikoa ez den familia batek egoera burugabez betetako unibertsoan murgildu araziko ditu ikusleak, eta konturatzerako, publiko hori familia horren parte sentiaraziko dute. Umore dosi handiko antzezlan da, eta beste behin, antidrepresibo osasuntsu eta eraginkorrena barre egitea dela ohartaraziko digu antzezlan honek. Maite Guevarak zuzendutako obra da *Prozak*, eta Guevaraz gain honako beste antzezle hauek osatzen dute taldea: Ariñe Azkue, Koldo Arakistain, Javier Garcia Mimo eta eta Mikel Pikaza.

THE ETTA JAMES EXPERIENCE. ABUZTUAK 24, San Bartolome Eguna. Kalegoen plazan, 00:00etan.


Herbehereetako hamabi lagunek osatzen dute taldea, haize-instrumentuen atal indartsuduna eta swing, blues, soul, funk eta rock and rolla egiten dute. *Rock Me Baby*, *Tell Mama* edo *Something's Got a Hold on Me* bezalako klasikoak aurkituko ditugu beren erreperatorioan, dantza eginaraziko digutenak, eta baita balada ospetsuenetako batzuk ere, *At Last* edo *I'd Rather go Blind*, esate baterako.



'ONDORENGOAK ANTZEZLANA. Abuztuak 25, Umeen Eguna. Maalan, 19:00etan.



Familia osoarentzako antzezlan da Zirika Zirkus konpainiaren *Ondorengoak*. Lopeziarrena zirko konpainia entzutetsua da, musikari, dantzari eta abarrez osatutakoa, baina bosgarren belaunaldikoak ordezkatzeko garaia helduko zaie, eta ilusioz gainezka egon arren, zaila egingo zaie ondorengoei zirkoari eustea. Zuzeneko musika, klakea, malabareak, akrobaziak eta akroportek uzartzen ditu umore dosi handiko lan honek.



OBANEUKE TALDEAREN DANTZALDIA. Abuztuak 25, Umeen Eguna. Kalegoen plazan, 22:30ean.

2008an sortu zuten lau lagunek Obaneuke erromeria taldea. Taldearen estiloa eta airea trikitixa batek markatzen ditu, eta horrek ematen dio ukitu original eta bertokoa. Erromeria txiki-tan hasi ziren, eta urte gutxiren buruan plaza handiagoak ere okupatu dituzte, bai eta erreperitorioa zabaldu ere. Betiko erromerietan eta gazte giroko berbenetan ezagunak dira.



'REZIKLATOR' IKUSKIZUNA. Abuztuak 26, Txiki Eguna. Aita Agirre plazan, 12:00etan.



Kaleko musika-ikuskitun pedagogikoa da *Reziklator*, 12 bat urte arteko haurrei zuzendutakoa. Marimertxe garbitzailearen eta zaborra edonon uzten duen Kakamatraka pertsonaia-aren arteko istorioa da, hein handi batean. Kakamatrakak ahulgune bat dauka: musika, eta musika erabilia eta Krix-Krax, Rastaka, Pottori eta Plastikillo lagunen bidez Kakamatraka uxatzea lortuko du Marimertxek. Zaborrak sailkatzearen beharraz kontzientziatzeko obra da.

ROCKALEAN. Abuztuak 26, Txiki Eguna. Sigman hasita, 20:00etan.

Musika munduan denbora luzea daramaten bost musikaririk osatutako taldea da RockKalean: Javier Area eta Odei Astibia (baterian), Jon Viejo (Sousaphonea), Mikel Sukunza (gitarra) eta L.M Moreno *Piratak* (ahotsa eta haizezko instrumentuak). Rock eta pop estiloko kantuek egiten dituzte, eta hainbat talde ezagunen bertsioak jotzen dituzte, mimo handiz.



KOLPEZ BLAI. Abuztuak 30, Gazteen Eguna. Kalegoen plazatik abiatuta, 20:00etan.



Bederatzi lagunek osatzen dute Kolpez Blai taldea: Ander Garciak, Odei Astibia, Ander Larrañagak, Aitor Zudairek, Andika Guerrerok, Harriet Irigaraik, Unai Odriozolak, Irati Hernandezek, Alberto San Fulgenciok, Unai Goigianak eta Aitor Malvidok. Energia handiko ikuskizuna eskaintzen dute, musika, dantza eta mugimendua batzen dituen.



ESNE BELTZA. Abuztuak 30, Gazteen Eguna. Maalako parkean, 23:00etan.

Esne Beltza taldea 2007. urtean sortu zuten Fermin Muguruza kantariarekin aritutako zenbait musikarik, tartean Xabier Solano trikitilariak (Etzakit, The Solanos, 4 Itzal) eta Zigor Lampre disko jartzaileak (Selektah Kolektiboa). Reggae, rock, hip hop, cumbia eta ska doinuak nahasten ditu Esne Beltzak, Negu Gorriak-ek, Muguruzak berak edota Mano Negrak jorratutako ildo beretik.



AUKERAN DANTZA KONPAINIAREN 'FUSIOAK'

Abuztuak 31, Baserritarren Eguna. Kalebarren plazan, 18:30ean.




1997. urtean jaio zen Aukeran konpainia, Edu Muruamendi-eraz dantzari eta koreografoaren ekimenez, eta orduz gozotik ibilbide luze eta aberatsa jorratu du. Dantza tradizionalaren eta garaikidearen mestizajearen oinarritzen dira bere lanak. Proposamen berritzaileak egin izan dituzte eta ezagunak dira Euskal Herrian, bai eta gure mugetatik kanpora ere. Euria bada, Maalara aldatuko dute lekuz emanaldi hau.

BIDEO MAPPING: ARGI, BIDEO ETA MUSIKA IKUSKIZUNA

Abuztuak 31, Baserritarren Eguna. Kalegoen plazan, 23:00etan.

Bideo mappinga (Projection mapping) irudien edo animazioen proiektioari esaten zaio eta eraikinen azaleratan egiten da normalean. Irudiak berak eta haren mugimendua azalera sortzen dituen efektuen bitartez, ezohiko emaitza artistikoa lortzen da. Bideo mappinga egiteko programa informatiko bereziak erabili ohi dira, bolumenak automatikoki marrazteko eta zehazteko balio dutenak, eta lortzen den emaitza ikusgarria izaten da. Ilusio optikoen jokoaren helburuetako bat ikuslearen pertzepzioa nahastea izaten da, irudi finkoari edo geldik dagoena mugimenduan dagoela sinestaraztea. Horixe egingo dute Elgoibarren ere plazako eraikinekin. Antolatzaileek aurreratu dute ekitaldi ikusgarria izango dela.



PURO RELAJO MARIATXIAK. Abuztuak 31, Baserritarren Eguna. Kalegoen plazan, 23:30etan.



Nafarroa Garaiko musika taldea da Puro Relajo, Zangozaldeko Oibar udalerrikoa. Nagusiki Kanta mexikar eta latinoamerikarrak kantatzen dituzte, baina euskal kantak ere abesten dituzte, tartean Xabier Lete eta Mikel Laboaren abesti ezagunak. Taldearen eraginak askotarikoak dira: Mexikoko musika klasikoa, rantxerak, korridoak, balsak, folka, vallenatoak, cumbiak, musika latinoamerikar klasikoa, boleroak eta abar luze bat. Abuztuarekin batera, gure inguruko herri askotan ikusiko ditugu, "musika bizia eta sentimendu handikoa" sortzen.

Ondo pasa jaietan!



Muruamendiaraz
Gozotegia

www.muruamendiaraz.com
San Bartolome, 29 - 20870 Elgoibar - 943 740 345

*Ileapaindegi mixtoa
*Estetika
*Medikuntza Estetikoa
*Laser diodoa
*Solaxium-a

Ondo pasa Jaiak!


idama

idamaileapaindegiaetaestetika@gmail.com
f i Tlf. 943744026

Enpresetarako gestio programetan, segurtasunean eta zerbitzuetan espezializatuak

Ondo pasa jaietan!

Albitxuri Industrialdea, 3i
Tel.: 943 748 105
info@softlan.biz
www.softlan.eus



Aurrematrikula epea zabalik 2019-2020

IKASBAI AKADEMIA
- Matematika, euskara, gizarte, fisika eta kimika...
- LH ETA DBH
- Euskara errefortzuak

IKASGO AKADEMIA
- Ingeles errefortzuak.
- Cambridge azterketak
- Talde txikiak

Gorde ezazu zure lekua!

667 261 248

IKASBAI AKADEMIA IKASGO ACADEMY Basarte 13, behea - Elgoibar
akademielgoibar@gmail.com

EZKONTZAK BATAIOAK JAUNARTZEAK AGURRAK KINTADAK KARAOKE arekin

ORDUTEGIA
7:30etik 22:00etara
Astelehen arratsaldeetan itxia
Igandeetan erretserba eginez gero zabalik.

Sigma jatetxea
"Berezitasuna EGUR-IKATZETAN"

Tel.: 943 748 531
675 708 160
sigma.jatetxea@gmail.com

Milar esker guztioi zuen konfidantzagatik



Aldarrikapena eta jaia

Urtero legez, elkarlanean antolatu dute herriko gazteek Maalako Gune Askeko egitaraua, eta aurreko urteetan moduan, jai-egun bakoitzari aldarrikapen bati lotutako izena jarri diote. Era berean, azken urteetan ezaguna egin duten lelopean antolatu dute aurten ere Gazteen Eguna: *gaztiakgerabarrren*. Logotipo lehiaketa egin dute, eta Leire Rodriguez

Maalako Gune Askeko kultur eskaintza

GORA ETORRI

Abuztuak 23, barixakua
01:00etan



Durango 2017an ospatu zen Gazte Egunerako *Gazte egune da ta kantua* egin zuten, eta handik sortu zuten Gora Etorri musika taldea. 22 eta 27 urte arteko zazpi lagunek osatzen dute taldea, eta eurodance estiloari base-ri mundua erantsita "agrodance" estiloa lantzen dute. Umorea eta ondo pasatzeko helburuarekin igotzen dira oholtzara, baina gai sozialak ere lantzen dituzte, *Biribilketa feminista* abestia da horren adibide. Euskaraldirako ere egin zuten *Jaixu kebapa* kantu entzutetsua.

LARRAIN DANTZA

Abuztuak 24, zapatua,
21:00etan



laz egin zuten bezala, aurten ere larrain dantza antolatu du Maalako Gune Askeko jai batzordeak zaturako, San Bartolome egunerako.

Larrain-dantza gizon-emakumeen dantza da, plazan dantzatzekoa biribilean bikoteka. Itxuraz, Lizarran du jatorria, baina dantzaren antzeko aldaerak egiten ziren Uxuen, Agoitzen eta Arruazun ere XIX. mendearen bukaeran eta XX.eko hasieran. Dantzariak bikoteka eskuak zapi baten bidez loturik dantzatzen dute.

TXIMELETA

Abuztuak 26, astelehena,
20:30-22:30/00:00-02:00



2000. urtean sortu zuten Tximeleta erromeria taldea, aurrez beste hainbat taldetan ibilitako musikariak. Bateria, baxua, gitarra eta teklatuaz gain, trikitixa, panderoa edota gaita eta txirula moduko instrumentu tradizionalak jotzen dituzte, eta euskal doinuetan oinarritutako errepertorioa dute (%75 euskarazko kantuak dituzte). Mexikanak, kalejirak, fandangoak edota folk doinuak uztartzen dituzte eta rock talde ezagunen beretsioak kantatzen dituzte euskaraz nahiz erdaraz.

NIALA MAGOA

Abuztuak 29, eguena,
19:00etan



Alain Zulaika elgoibartar gaztea da Niala magoa. Kaperajantzi eta magia-maleta soinean hartzen duen publiko ahozabalik uzteko abildadea du. 11 urterekin hasi zen magia egiten, Oliver magoak zuzendutako udalekuetan. Ikusi eta ikasitakoarekin lilurata Bilboko Fabrica de magos eskolara joaten hasi zen gero astero. Bere lehen jende aurrekoa Tarrantaka tabernan egin zuen, anaiaren urtebetetze ospakizunean eta geroztik makina bat saio eskaini ditu Elgoibarren zein herritik kanpo.

BIKUSTIK

Abuztuak 29, eguena,
21:00etan



Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaletak osatzen dute Bikustik. 2008ko maiatzean sortu zuten proiektua, eta rockaren klasiakoak eta gaur egungo beste hainbat kantu modu akustikoan moldatzen dituzte. Bikustik taldearen emanaldietan Beatles, Led Zeppelin, Rainbow, Queen nahiz Creedence Clearwater Revival bezalako taldeen kantuak entzun daitezke. Azalpen askorik behar ez duen bikoia da Bikustik gure inguruan, bai eta proiektu honetako bi buruak ere. Hainbat proiektutan ibilitakoak dira biak, eta Sinüoseko kide dira.

elgoibartarrak eginiko lana saritu dute. 21 urte ditu, eta arkitektura ikasten ari da Rodriguez. Gustuko du horrelako lehiaketetan parte hartzea, eta orain dela hiru urte ere sanbartolomeetako kartel lehiaketa irabazi zuen. Berak prestatutako logotipoa soinean eramango dute Elgoibarko gazteek Gazteen Egunean, eta beretzako "ohore bat" izango dela adierazi du.



LEIRE RODRIGUEZ

DEBRASSBAND

Abuztuak 31, Zapatua,
22:30etik aurrera

HARA!

Abuztuak 31, zapatua
22:30etik aurrera

EMAN-EMAK

Abuztuak 29, eguena,
19:00etan



Duela urtebete eskas sortu zuten taldea sei debarrek, baina kalean jotzeko eskabideak hasi zitzaizkienean beste lau lagun batu zituzten taldera. Gaur, bi perkusio-jole, tuba, tronboi bat, bi tronpeta, bi saxofoi altu, tenore bat eta baritono batek osatzen dute taldea. Musika estiloari dagokionez, zaila da egiten dutena definitzea, baina funky, soul, house... estiloak lantzen dituzte. Lucky Chops, Too Many Zooz, Youngblood Brass Band... taldeak dituzte erreferente. Iaz ere jo zuten Elgoibarren, sanbartolomeetan.



2016ko martxoan sortu zuten Hara! musika taldea eta 2017an zazpi kantuz osatutako euren lehen diskoa kaleratu zuten Baga Biga zigiluarekin: *Adikzioak, minak eta desirak*. 2018ko urriaren 18an euren bigarren lana eman zuten argitara: *Errortak*. "Modu ireki batean" ulertutako rocketik abiatuta estilo edo eremu ezberdinetara inkurtsio txikiak egiten dituzte, eta 90eko hamarkadako taldeen eragina du haien musikak. Aitor Lazkano Arisondo (bateria) eta Jon Kirru Iparragirre Burgoak (gitarra eta ahotsa) osatzen dute taldea.



Maddi Erauskin, Sara Ayesa eta Maria Sarasola donostiarrek osatzen dute Eman-Emak proiektua. Donostiako Piraten mugimenduaren barruan duela pare bat urte sortutako proiektua da. Jai egitaraua osatzeko musika talderen bat inguratzeko aski diru ez zutenez, Donostiako hiru pirata hauek euren burua aurkeztu zuten musika jartzeko, eta ekitaldi hura gauzatu ez bazen ere, gerora hainbat plaza egin dituzte. Parranda giroko musikari musika aukera berriak gehitzen dizkiote euren erreperitorioan, eta saiatzen dira musikari emakumezkoen kantuei eta euskaraz sortzen duten musikariei tarte berezia eskaintzen.

EGITARAU

(Uztailaren 23an inprentara bidaltzerako lotuta zituzten ekintzak)

ABUZTUAK 23, BARIXAKUA**Sebas etxera!**

12:45 Euskal preso eta iheslarien eskubi-deen aldeko elkarretaratzea.

15:00 Herri bazkaria.

01:00 Gora Etorri.

ABUZTUAK 24, ZAPATUA**Egun morea**

21:00 Larrain dantza.

ABUZTUAK 26, ASTELEHENA**Txiki eguna. Jaietan euskaraz!**

20:30-22:30/00:00-02:00 Erromeria Tximeleta taldearekin.

ABUZTUAK 29, BARIXAKUA**Herriko artistak**

Goizean, erreka garbiketa + bazkaria.

17:30 Egur arte taldearen eskutik umeentzako eskulan tailerra.

19:00 Niala magoa.

21:00 Bikustik taldearen kontzertua.

ABUZTUAK 30, BARIXAKUA**Gazteen eguna.****Altsasukoak aske!**

13:30 Egunari hasiera plazan.

14:30 Bazkaria Sigman + Jolasak.

18:00 Elektrotarangarekin kalejira.

20:00 Euskal preso eta iheslarien eskubi-deen aldeko elkarretaratzea.

ABUZTUAK 31, ZAPATUA**1080 gutxieneko pentsioa**

22:30 Debrassband + Hara + Eman-Emak.

Gabi
jarettea

**TXIKI EGUNERAKO
ETA
GAZTEEN EGUNERAKO
MENUA**

943 741 230 *Ondo pasa jaietan*

► Aperitiboa.

► Tomatetan bustitako ogi-txigortua urdaiazpiko iberikoarekin.

► Kuku entsalada antxoarekin eta tomate-ozpin-olioarekin, otarrainxkekin eta albakarekin.

► Onddoz eta barazkiz beteriko hostorea.

Bigarren platera aukeratz:

► Zapo, otarrainxka eta hirugihar broxeta, barazki-ozpin-olioarekin.

► Erreboiloa, donostiar erara.

► Azpizuna gazta-saltsarekin.

► Txerriki iberikoaren luma, laranja saltsarekin.

Postrea aukeratz:

► Esnegain eta marrubi kornetea.

► Txokolate-krepa bainila-izozkiarekin.

► Sagar-tarta karamelu-izozkiarekin.

37€

**SAHATZU
HARATEGIA**

Santa Ana, 5
T943 742 048

JON ULAZIA
"SAHATZU"

karkizano

Ondo pasa sanbartolomeetan!

San Frantzisko, 14
Tel.: 943 740 549
Elgoibar

Masaje zentrua
Idoia Garcia

Trenbide kalea, 19 - Elgoibar - 943 531 221
Ondo pasa jaietan!

**autocares
Revert**

943 741 853 autocaresrevert@gmail.com

Maria Urizar

Ileapaindegia

Abuztuaren 22 eta 23an goizez zabalik

San Frantzisko 15, behea
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
maria.urizar@hotmail.com

lizardi

INGENIERÍA
DISEÑO
CONTROL

Ondo pasa jaietan!

e

Olaso industriagunea - Olaso kalea, 15-L. 67 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 312 - www.lizardi.net


► Sokamuturra: segurtasun handiagoa ibilbidean

Ekitaldi taurinoak antolatzeko araudia berri zutenetik, segurtasun neurri gehiago hartzera behartuta daude antolatzaileak. Elgoibarren zezenekin lotura duen ekitaldi garrantzitsuena sanbartolomeetako sokamuturra da, zalantzarik gabe, eta azken urteetan neurriak hartzen hasita bazeuden ere, aurten aldaketa nabarmenak izango dira ibilbidearen itxiturari dagokionean: Elgoibarko Udalak burdinezko barra bertikalak jarriko ditu hainbat gunetan, pertsonak bai, baina zezena ez kabitzeko modukoak.



Correos dagoen parean ipiniko dituzte, esaterako, hesi berezi hauek.

Sokamuturra egiten den eremua murriztu egin dute antolatzailerak azken urteetan, eta, gaur egun, hiru zonaldeetan banatzen du Udalak eremu hori: Maala, Kalebarren eta Kalegoen. Eremua murriztearekin batera, hesiak jarri dituzte inguru guztian, korrikalarientzat eta ikusleentzat seguruzagoa izan dadin. Kalebarren plazan eta San Frantzisko iturriaren gainaldean, egur eta metalezko hesitura finkoa jarri zuten duela urte batzuk, eta, iaz itxitura finkoak jarri zituzten estreinakoz San Bartolome eta Errosario kaleen erdian, bai eta baita King-Kong parean ere.



Giza eskubideen parkera ematen duen udaletxeko arkupeira.

Aurtengo jaietan beste pauso bat emango du Elgoibarko Udalak segurtasunari dagokionean, eta itxitura berriak jarriko ditu sokamuturraren ibilbidean. Kalegoen plazako sektorerako hesi berriak erosi dituzte: Azpeitiko Landeta Burdin Lanak enpresak egin ditu hesiak, eta berezitasun bat dute: bertikalak direla. 2x2 metroko egiturak dira, elkarrekin lotu daitezkeena, eta, 35 zentimetro dituzte barratik barrara. Hala, hesiak gainetik salto eginda pasa beharrean, korrikalariek barren artean pasa beharko dute orain. Hurrengo urteei begira gainerako sektoreetan ere jarriko ditu Udalak era honetako hesi finkoak.

AURTEN GUNE HAUETAN JARRIKO DITUZTE:

- ◆ **Udaletxeko arkupeetan:** Giza Eskubideen parkera ematen duen arkupean.
- ◆ **Txankakoa zubiaren hasieran:** Hirigintzako eraikina dagoen parean ipiniko dute, Txankakoa zubia baino beheaxeago.
- ◆ **Muguruzatarren arkuaren ondoan:** 2x2 metroko egitura bakarri jarriko dute Muguruzatarren arkuaren ondoan.
- ◆ **San Inazio kalean:** Correos dagoen parean era honetako lau hesi ipiniko dituzte elkarrekin lotuta.
- ◆ **Santa Ana kalean:** Arnoko ganadutegikoek kamioia ipintzen duten parean ipiniko dute hesi bat.



asador

ibai-ondo

943 256 028

Ibai-Ondo erretegia menua

- Errezebo erreserba handiko urdaiazpikoa
- Etxeko frijituak
- Patea
- Gula eta ganba entsalada epela

Bigarren platera aukeratzeko

- Arkume erreka
- Entrekota
- Buztana eta masailak saltsan
- Txipiroiak plantxan
- Erreboiloa
- Legatza plantxan edo arrautza-irinetan

- Postrea

32€

LANBROA San Miguel

Pedro Muguruza, 5
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

MENU LANBROA 1

- Iberikoak
- Patea
- Frijituak

25€

Bigarrena aukeratzeko

- Azpizuna
- Masailak bere saltsan
- Bakailoa tomatearekin
- Legatza labean erreta

Ardoa eta freskagarriak

MENU LANBROA 2

- Iberikoak
- Frijituak
- Txerri saiheskia erreta
- Postrea

16€

USUA

943 256 028

kafetegia

USUA MENUA

- Patea
- Urdaiazpikoa
- Frijituak
- Txerri saiheskia edo legatza plantxan
- Postrea

20€





1968

Aste honetako erretratu zaharra Australiatik iritsi da BARRENen erredakziora. Jose Urbieta eta Pepi Cornejo elgoibarrak dira argazkian agertzen direnak. Elgoibarkoak dira biak, baina Australian bizi dira. Lanera joan ziren gazetetan, eta han geratu ziren. Han osatu zuten familia, eta dagoeneko jubilatuta dauden arren, hantxe bizi dira. Tarteka etortzen dira Elgoibarrera familiakoak bisitatzera, eta BARRENi esker jasotzen dute Elgoibarko berri. Argazki hau 1968ko sanbartolomeetan ateratakoa da, tiro-pitxoian.



Iñigo Lamelas

Irati Agirreazaldegi



San Bartolome bezperan plazara joanda, txapligoaren eztanda. Ura, ardoa, gaseosa edo beste edozer bota zein edanda, hastera doa parranda. Txupinazioa da jaien hasiera, eta herriko jaietan herritarren begira ibili ohi da norbera, besteek seguraski berari begiratuko dioten antzera.

la urtero hainbat gauza errepikatu arren, beste batzuk aldatzen dira. laz txupinazora gurasoekin joandako gaztetxoak, aurten, lagunekin elkartu eta pozik doaz plazaren erdira. Pasa den urtean lagunekin parrandan ibilitako beste makina bat guraso berri, aurten, umeak besotan, begietan inbidia dizdira, umerik gabeko lagunei begira. Horrelako jai egunetan “desagertuko” balira...

Jaiak, baina, denontzako dira jai. Ume, guraso, eta gainerako herritar guztientzat ere bai. Jaiak beti hizketarako gai, eta ahal dela, noski, alai. Denok behintzat hala dugu nahi. Denok, bai, eta hala beharko, jaien aitzakiak denok elkartzen gaituelako; umeen, gazteen, erretiratuaren zein baserritarren egun izendatzen badira ere, jai egun guztiak denontzat direlako.

Baina bada egun bat bereziki elgoibartar guztiena, gure txikian, ume, gazte, heldu zein adineko, handi egiten gaituena; Txiki Eguna, onena. Egundorretan adinak bereziki ez du axola; musika doinuei segika, multzo berean familia bereko hainbat belaunaldi ardoa dariola eta elkarri kontu hartu gabe inondik inola.

Adinak ez du inporta, baina aurten bada zenbaki bat, 50a, askok duena begiz jota. 50 txapligotik gora bota, 50 kalejira 50 aldiz baino gehiago jota, 50 musikaritik gora gainditu dutenak txarangaren kota. Mauxitxaren 50. urteurrena ospatzeko dago eta. Lehen doinuak hasi zituen Makilak kuadrillak, gero dantzan jarri zituen musikariak urte luzez Mauxiren makilak, eta gaur egun zein aurrerantzean, prest dira herria kantuz janzteko txarangako neska mutilak.

Txiki Egunez kalejiran elkartzen diren herritar batzuen artean badira 50 urte, eta adinari erreparatu gabe, elkarrekin dantza zein salto egiten dute. Zenbat hobe egun hortan bezala lotsak galdu eta urte guztian barrena elkarren lagun gisa jokatu bagenuke. Jaietako txupinazoko txinpartak zein Txiki Eguneko ardanta pila bat elkartu, eta hainbestetik, jai bat.

“Bada egun bat elgoibartar guztiena, gure txikian handi egiten gaituena”

Gremioen gida

ARozTEGIak



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ARozTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albixuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



Olcaso industriegunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriegunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINtZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
mendia@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tafler@pagoagasa.com
ELGOIBAR



FONTANERÍA
ITURGINtZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



ITURGINtZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

Iturgintza

Aroztegiak

LEIHOak



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK



658 710 898

Izurrien kontrako
tratamenduak

Leihoak

ELEKTRIZITATEA



Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



ELEKTRIZITATEA S.L.
Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR
Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR
Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

Pintura

Elektrizitatea

Igeltseritza



EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

📍 *ESKERRIK ASKO!* 😊

Kontsultara etortzen zareten paziente guztioi proiektu hau posible egiteagatik: **Gure lantalde profesionala eta instalazioak handitu ditugu zerbitzu hobea eskaintzeko.**

Ilusioz eta bokazioz sortutako egitasmoa, beti kalitatezko odontologia baten alde.

*Ondo pasa
Jaixetan!!*

🏠 San Agustin Kalea, 4 Behea Ezkerra
20600 Eibar (Gipuzkoa)
☎ 943 537 076 - 688 884 808
✉ info@eibarclinicadental.com